
bbk gizarte ekintza 

2012ko memoria

AURKIBIDEA


1. Gizarte-inbertsioa	5
2. Misioa, erronkak eta antolakuntza	6
2.1. Misioa	6
2.2. Erronkak.....	6
2.3. Antolakuntza	8
3. BBK Solidarioa - Gizarte Ekonomiari laguntzea	8
3.1. Gizarte-finantzaketa	9
3.2. Ekintzailetzarako laguntza	10
3.3. Gizarte-ekonomiako ekimen berrientzako laguntza	11
3.4. Aurrezki solidarioa sustatzea.....	12
3.4.1. BBK Fundazioa Elkartasun Fondoa	12
3.5. Beste jarduera batzuk.....	13
3.5.1. Bidezko merkataritza.....	13
3.5.2. Garapenerako lankidetzeta	14
3.5.3. Giza Laguntza.....	15
4. BBKren Beka Programa	15
4.1. Lan-praktiketarako beka-programa.....	15
4.1.1. Bizkaiko enpresetako praktikak:.....	16
4.1.2. Praktikak atzerriko enpresetan:	16
4.2. Prestakuntza Espezializatua Eskuratzeko Beka Programa	16
4.3. Prestakuntza Osagarriko Beka Programa	17
4.4. Ikerketarako Beka Programak	17
4.5. Arte eta Kultura alorreko Sormena Sustatzeko Beka Programa	18
4.6. Bilbao BBK Talent	18
4.7. BBK Abandoibarra	19
5. Desgaitu eta Mendekoei laguntzea	19
5.1. Ola BBK zentroa	21
5.2. Eragintza Fundazioa.....	23
5.3. Argia Fundazioa	23
5.4. Aspaldiko Fundazioa.....	24

5.5 Eguneko zentroak	24
5.6 Bilbao BBK GoodHostel	25
5.7 Jabetuz zentroa	25
5.8 Hondartza Denontzat	25
5.9 Dokudea zentroa	26
5.10 Futubide zentroa	26
5.11 EM Labs	26
5.12 Apnabi Bizimodu independentea	27
5.13 Barriztu programa	27
5.14. Beste esku-hartze batzuk	27
6. Haurrak eta gazteak laguntzea	28
6.1. Haurr Eskolen sarea.....	29
6.2. Hezkuntza-sistema laguntzeko programak	29
6.3. Haur eta gazteentzako udalekuak	32
6.4. Izenaduba Basoa.....	33
6.5. Beste jarduera batzuk.....	33
7. Nagusiak laguntzea	33
7.1. Nagusientzako Zentroak.....	34
7.2. Jarduera soziokulturalen programa	34
7.3. EHUko Esperientzia Gelak	35
7.4. Nagusientzako egoitzak.....	36
7.5. Beste jarduera batzuk.....	36
8. Hirugarren Sektorea laguntzea eta sendotzea	37
8.1 Gizarte Proiektuetarako Laguntza Programa	37
8.2 Bolunta – Boluntariora eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia	39
8.3 Ganbara (Elkarleen hotela)	40
8.4 Hirugarren Sektoreko Behatokia	41
8.5 Indartu Programa	43
8.6 Bidera Programa.....	44
8.7 Beste esku-hartze batzuk	45
9. Ingurunea eta ingurumena	45
9.1 Hezkuntzaren eta zabalkundearen aldeko ahalegina.....	46
9.2 BBK Bioeskola	46
9.3 Urdaibai Bird Centre	47

9.4. Lehen Sektorea Sustatzeko Programa.....	47
9.5 Uzta Landuz, iraunkortasuna ereiten dugu	48
9.6 Aparka, mugikortasun iraunkorra	49
9.7 BBK Basoa	49
9.8 Pakea Bizkaia 2010-2014.....	50
9.9 Salbamendua eta Sorospena Bizkaiko hondartzetan	50
10. Oinarrizko eta Amateur Kirola Sustatzea.....	50
10.1 BBK Mundialitoa	50
11. Gizarte Etxebizitza	51
12. Kultura eta sormena	51
12.1 BBK Sala	51
12.1.1 Erakusketak	52
12.1.2 Antzerkia eta Dantza	52
12.1.3 Musika	52
12.1.4 Zinema	53
12.1.5 Beste jarduera batzuk.....	53
12.2 BBK Mediateka	54
12.3 Museoekiko lankidetza.....	54
12.4 Musika	56
12.5. Euskara eta euskal kultura.....	56
12.6 Argitalpenak	56
13. Giza Baliabideak.....	57
14. BBKren Gizarte Ekintzako Guneak	59

1. Gizarte-inbertsioa

Gizarte-alorreko esku-hartzeetara zuzenean bideratutako 69 milioi eurotik gora kudeatuta, 2012an ere BBK lehena da Aurrezki Kutxen rankingean gizarte-dibidenduaren alorrari dagokionez, tamainaren arabera. Are gehiago, une honetan, EAEn gizarte-gastu handiena duen erakunde pribatua da.



2012ko ekitaldiko ba

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
GIZARTE EKINTZAKO ZENTROAK	5.988.942,00
GIZARTE EKINTZAKO HIGIEZINAK	1.223.913,49
GIZARTE EKINTZAKO INBERTSIO IBILGETUA	9.766.802,58
GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMA ETA JARDUERAK	9.016.298,00
LANKIDETZAN EGINDAKO PROGRAM. ETA JARDUE.	10.406.703,79
INTRANET, INTERNET ETA SISTEMAK	36.440,00
GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMEN KOMUNIKAZIOA	379.590,00
GIZARTE EKINTZAKO GIZA BALIABIDEAK	14.184.784,61
BBK FUNDAZIOA	13.000.000,00
GORDINA GUZTIRA	64.003.474,47
BESTE SARRERA BATZUK	-13.712.641,47
GARBIA, GUZTIRA	50.290.833,00
HIGIEZINAREN AMORTIZAZIOA	5.313.720,00
AURREKONTUA GUZTIRA	55.604.553,00
KUDEATUA GUZTIRA	69.317.194,47



2. Misioa, erronkak eta antolakuntza

2.1. Misioa

BBKren Gizarte Ekintzak **100 urtetik gorako ibilbidea** du. Denbora-tarte horretan bere zerbitzuak eta ekarpenak egunean ipintzen ibili da, aldiro, gizartearen beharrianetara moldatuz. Bere jarduera-eremuko **gizartearen garapenean** zalantzarik gabeko eragina izan du. Azken 5 urteotan soilik 865 milioi euro inbertitu ditugu, zuzenean eta zeharka milaka pertsona lagunduz, hurrengo alorretan: ekintzaileentzako laguntza, menpekotasuna eta ezintasuna, haurrak eta gazteak, nagusiak, ingurumena, gizartean baztertuta bizi direnak, etab. Gaur egun, **balio handiko gizarte-programa** sorta dauka, eta erabiltzaileek, herri-erakundeek eta hirugarren sektoreko erakundeek oso aintzat hartzen dituzte. Lorpen guzti horiekin, gure Gizarte Ekintzaren etorkizuna gogo handiz diseinatu ahal izango dugu, BBKren balio-proposamena besteengandik bereiztea elementu oso garrantzitsua dela jakinda.

Horregatik, **gure misioa balio iraunkorra sortzea dela baieztatu dezakegu**. BBK **gizartearen garapenarekin** eta **balio iraunkorra sortzearekin konprometitutako erakunde pribatua da**. Horregatik, gizartearentzako balioa sortzen du, Kutxabanken bitartez finantza-zerbitzuak eskainiz. Halaber, **gizarte-ekintza garrantzitsuaren bitartez, komunitatearen garapenaren eragilea da**. Ekarpene biak elkarren osagarriak dira eta bere historia, identitate eta xedearekin bat datoz. Ikuspegi hori kontuan hartuta:

- ✓ *Gure aburuz, gizarte-ekintza gizarteratze-prozesuetan egindako eragin proaktiboa, sistematikoa eta bidezkoa da.*
- ✓ *Aurrezki Kutxa izanik, zehatz-mehatz finantza-bazterketaz arduratzen gara, baina horrek ez du azaltzen ezta agortzen ere gizarte-bazterketaren fenomeno konplexua.*
- ✓ *Gure gizarte-ekintzaren jomugan pertsona eta ingurune guztiak daude, baina batik bat Kutxabanken interes-taldeak. Izan ere, finantza-harremanaren bitartez gizarte-arloko jarduerak egiteko aukera emango duten baliabideak lortuko dituzte talde horiek.*
- ✓ *Beraz, Gizarte Ekintzaren hartzaileak hurrengo hauek izango dira: gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden edo kaltetuak izateko aukera duten pertsonak, taldeak, erakundeak eta komunitateak. Halaber, gizarteratzen laguntzen duten prozesuetan parte hartzen dabilzan eragileak barnean hartzen ditu.*
- ✓ *BBK Gizarte Ekintzak sustapena eta prebentzioa sustatu gura ditu, batzuetan asistentzia emateko edo kaltea arintzeko izaera hartu dezakeen arren.*
- ✓ *Gure asmoaren baitan zeharkako elementu eta balio multzo bat sartzea, batez ere, generoaren araberako ikuspegia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko tresna gisa.*

2.2. Erronkak

BBKn honelako Gizarte Ekintzaren aldeko apustua egiten dugu:


- ✓ ... gizarte-ekarpen **garrantzitsua** egitera bideratua, eragiletza- eta aitzindaritzagaitasunarekin, jakinik erronka horrek ikuspegia eta bizi garen **gizartean txertatuta egotea** eskatzen duela. Beste eragile batzuekin ikuspegi partekatatu hori sortzeko eta **gizarte-ekintzaren abangoardian** egoteko konpromisoa hartzen dugu.

- ✓ ... **elkartasunaren, inklusioaren, etikaren eta iraunkortasunaren** aldeko apustua egiten duena. Horixe izan da gure Gizarte Ekintzaren nortasun-ikurra: pertsona guztien gizarteratze aktiboa eta solidarioa bultzatzea; horretarako, ezintasunaren alorreko eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboen alorreko erreferentziazko proiektuei heldu die. Proiektu berritzaileen bidez, **elkartasun-eremu horretan aitzindari izaten jarraitu gura dugu.**
- ✓ ... gure interes-taldeek **areago ezagutu eta estimatuko** dutena. Badakigu jakin gaur egun, Kutxabank posible egiten duten pertsonen aitorpenik, konfiantzarik eta laguntzarik gabe gure gizarte-proiektuak ez direla jasangarriak. Zorionez, gure gizarte-ekintzari buruzko informazioa eskatzen duten interes-taldeak ditugu. Horregatik, horiekin guztiekin **komunikazio-estrategia hurbila, konfiantzazkoa eta eraginkorra** diseinatzeko konpromisoa hartzen dugu. Guretzat, gure interes-taldeetatik hurre egoteak euren balio eta kezkekin konektatzea eta proiektuak euren parte-hartzeari zabaltzea esan nahi du.
- ✓ ... gizarte-ekarpena **diziplina- eta balio-aniztasunean** ulertzea. Gure iritzian, enplegua sortzea, ezagutza eta ikerketa, hezkuntza, gizarteratzea, osasuna, kultura, kirola, etab. elkarlotuta daude. Horregatik, **une bakoitzean eta egoera bakoitzean, gizartea aurrera bultzatzeko behar diren proiektuetan egon gura dugu.** Espezializazio-asmoaren aurka, jardun zabaleko Gizarte Ekintzaren aldeko apustua egiten dugu.
- ✓ ... baieztapen hori eginda, gure ustez gaur egungo egoeran funtsezkoak diren **apustu bi egiten ditugu**, eta bietan erreferentzia argia izan nahi dugu: **gizarte-berrikuntza eta talentuaren garapena.** Ikuspegi propioa dugu, bai gaur egungo krisi-egoeraren inguruan, bai ezagutzan oinarritutako gizarte lehiakor eta berritzaileantzt jotzeko moduaren inguruan. Eta pentsatzen dugu esparru horretan gizarte-balio handiko proiektuak bultzatuz bereizteko aukera dugula.
- ✓ ... zuzenean edo zeharka BBK-ko parte diren pertsona guztiekin lotua eta euren ekarpenetara irekia: gure plantilla, Kutxabank posible egiten duen jendea, erakundeak eta erabiltzaileak. Gu guztiok erakundearen **gizarte-konpromisoaren** parte garelakoan gaude. Pentsatzen dugu funtsezkoa dela **barne-komunikaziorako** eta parte hartzeko bideak indartzea, pertsona bakoitzak bere interes eta balioetarako egokia deritzon moduan bizi dezan konpromiso hori.
- ✓ ... **sare-lanean eta beste eragile, publiko eta pribatuekin lankidetzan** jardutearen aldeko apustua egingo duena. Konbentzituta gaude gure gizarte-proiektuen garrantzia eta indarra areago haziko dela gainerakoekin lankidetzan jarduteko gai garen heinean. Sistema baten partetzat jotzen dugu geure burua, erronka asko partekatzen ditugun beste eragile batzuekin batera bizi garelako. Ardura publikoaren esparruan subsidiarotasun-printzipiotik osagarritasun-printzipiora joanez, gizarte-sistemaren pieza izan nahi dugu; betiere premien eta gure ekarpen-ahalmenaren arabera, aitzindari izan, aitzindaritza partekatuan jardun edo lagundu egin nahi dugu.
- ✓ Aurrezki Kutxa moduan izan dugun mendetako jardueraren oinordekoa izango dena eta, beraz, **finantza- eta gizarte-bazterkeriaren ondorioz datozen gizarte-premia guztiekiko sentiberatasun berezia izango duena.** Gizarte-ekonomiako tresnak sustatuz, eskarmentu handia dugu bazterkeriaren aurkako borrokan; hain zuzen, esparru horretan aitzindari izaten jarraitu nahi dugu.

- ✓ ... azkenik, gizarte-konpromiso hori guztia profesionaltasunaren, **eraginkortasunaren eta gardentasunaren** aldeko apustu ukaezinarekin batera dator. Gure gizarte-proiektuetan egindako inbertsioak ahalik eta **gizarte-errentagarritasunik** handiena izateko konpromisoa hartzen dugu. Gure ustez, funtsezkoa da errentagarritasunaz berba egitea eta, horretarako, eraginkortasunarekiko konpromiso gorenarekin behar da.

2.3. Antolakuntza

BBKren Gizarte Ekintza diziplina eta balio anitzekoa da, bokazio propioz eta bere jarduna gizarte-premia berrietara egokitzeko malgutasuna eskaintzen dion nolakotasunez. Hala, osotasun koherente moduan egituratzen da, honako esparru hauetan esku-hartzeko:



3. BBK Solidarioa - Gizarte Ekonomiari laguntzea

BBK Solidarioa proiektua 2011ra arte BBK Gazte Lanbidean eta BBK Solidarioa fundazioek egiten zuten esku-hartzeen oinardekoa da, eta gaur egungo BBKren Gizarte Ekintzaren erreferente estrategiko nagusietako bat jasotzen du. Orain arte inoiz ikusi gabeko enplegu-suntsiketa ekarri duen krisi global ikaragarria da gaur egungo finantza-egoeraren ezaugarri nagusia. Krisi horrek gastu publikoa murriztea eragin du, orain arte ezagutu dugun Ongizate Estatua bera kolokan jartzeraino, eta are gordintasun handiagoz azaleratu da gizarteko segmenturik ahulenetan.

Ondorioz, sektore publikoaren, pribatuaren eta irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuaren artean **aliantza** berri eta indartsuagoak bilatzeko unea da. Aliantza horien helmuga pobrezia-eta prekarietate-egoerarik larrienak arintzera bideratu, eta baliabideak jarduera ekonomikoa (eta beraz, gizarteratzea) indartzeko kontzentratu behar dira.

BBKren Gizarte Ekintzak, oraindik orain, gizarte-finantzaketa espezializatu eta iraunkorreko eredu bat garatzeko apustu estrategikoa egiten jarraitzen du. Hala, finantza-erakunde kaudimentsu eta aitortu bati (halakoxea delako BBK) dagozkion gardentasun, zorrotasun eta exigentzia parametroen baitan jardunez, gizarte-ehuna indartu eta gizarte-balioa sortzeko aukera eskainiko da, hirugarren sektoreko erakunde-sistemaren egonkortasuna bermatuz.

Ikuspegi horretatik abiatuta, BBK-k gizarte- eta finantza-inklusioa bilatzen duten prozesuak bultzatzeko apustua egiten du, argi eta garbi. Ildo horretan, hiru dimentsio sinergiko eta koherentetan jarduten du, betiere asmo berberarekin: **gizarte- eta ekonomia-garapena**.

- ✓ Alde batetik, gazte ekintzaileek edo enplegurik ez duten pertsonen bultzatutako jarduera ekonomikoak abian jartzen, sendotzen eta zabaltzen laguntzea. Ez gara soilik lan-merkatuan sartzeko ari, lanpostu berriak sortzeko baino.
- ✓ Bestalde, irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatutik abiatuta eta gizarte-bazterkeriaren aurka, egoera ahulean dauden kolektiboetan gizarte-inpaktua duten proiektuak garatzen dituzten erakundeentzako **gizarte-finantzaketako** lerroa. Lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonen enplegua eskaintzen dieten gizarteratze-enpresak direla, elkarre-ehunaren eguneroko kudeaketa dela, ohiko kredituaren sistematik kanpo egonik premia pertsonalak edo familiarrak dituzten pertsona fisikoak direla.
- ✓ Azkenik, **aliantza eta sare multzoa**, gizarte-izaerako egitura produktiboak eraikitzea erraztuko duen orubea lortzeko asmoz. Termino horren pean biltzen dugu gizarteratzearen, iraunkortasunaren eta gizarte-partaidetzaren ikuspegiarekin merkatuan jarduten duten enpresa-ekimen berriak sustatzen dituzten pertsona eta gizarte-erakundeekin BBK-k garatutako lankidetzak eta konplizitate- kopuru handia.

3.1. Gizarte-finantzaketa

2012an, BBK-k gizarteratzea bultzatzeko jarduera bizia garatzen jarraitu du. Gizarte-finantzaketako proiektu garrantzitsuen bidez, 13,3 milioi euro eman ditu, hiru ardatzetan oinarrituta: ekintzaileei laguntzea, diru-irabazi asmorik gabeko erakundeak indartzea eta gizarte-ekonomiako enpresak sustatzea.

Atzeraldia eta langabeziaren hazkundera nagusi diren testuinguru honetan, ezinbestekoa da BBK bezalako erakundeen konpromiso sendoa, Aurrezki Kutxa moduan garatutako gizarte- eta finantza-ekintza arrakastatsuen oinordetza hartuta. **Autoenpleguko proiektua duten ekintzaileei** kreditua eskuratzea erraztu ahal izango zaie horrela. Adibidez, 2012an, BBK-k 1,9 milioi euro bideratu ditu kreditu eskuragarrietan, gazteen eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen **enpresa-ekimen berriak** finantzatzeko. Horri esker, langabezia zeuden 105 pertsonak jardun ordaindua eskuratu ahal izan dute.

Alor horretako beste esku-hartze garrantzitsua **irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde**ei finantzaketa egonkorreko iturriak mantentzean datza. Azpiegiturak eta zirkulazionalak finantzatzeko kreditua lortzea da, zalantzarik gabe, gizarte-ehuna indartzen laguntzen duten tresnetako bat. Eta gizarte-premietan zuzenean eragiten duten erakunde horiek indartuz, inpaktu zuzen eta etengabea lortzen dugu gizartean baztertuta dauden kolektiboetan, pertsonengan. Gizarte-errealitateari hertsiki lotutako erakunde horiekin lankidetzan aritu eta haiekin batera haztea da, zalantzarik gabe, BBKren Gizarte Ekintzaren jarduteko ereduaren indargune nagusietako bat.

Horrekin batera, 2012an **gizarte-ekonomiako** erakundeetarako finantzaketa-lerro berezia indartu du BBK-k. Irabazi-asmorik gabeko ekimen pribatuak sustatutako enpresa-egiturak, merkatuan ohiko enpresen aurka lehian aritu eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboek lanpostuak eskaintzen dizkietenak. BBK-k urteak daramatza **gizarte- eta ekonomia-balio iraunkorra sortzeko** estrategia horrekin konprometituta eta, gainera, interes-taldea, bezeroak, langileak, hornitzaileak eta erakunde publikoak biltzen ditu gizarte-arazoetarako erantzunaren bila.

Gizarte-finantzaketaren alorreko esku-hartzearen zati nagusia hartzen duten bloke horiekin batera, BBK Fundazioak **gizartean baztertua dauden pertsonen** zuzendutako finantzaketa-lerroa dauka, ez daukatelako ohiko banku-merkatu iristeko finantza-baliabide nahikorik. Finantzaketa txikiak dira, **mikrokredituaren** erara, premia pertsonaletara, maila pertsonal nahiz familiarreko proiektu txikietara bideratuta, horiexek direlako bizitza-proiektu handien oinarri diren lehenengo adreiluak.

2012an guztira emandako gizarte-finantzaketa

	2012		METATUA	
	ERAG. KOPUR.	ZENBATEKOA	ERAG. KOPUR.	ZENBATEKOA
EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZA	85	1.954.032	4.453	143.568.201
GIZARTE EKONOMIA	17	3.493.545	197	55.839.885
HIRUGARREN SEKTOREA	42	7.852.058	295	44.840.610
<i>Zirkulatzailerak</i>	32	6.929.000	230	35.733.102
<i>Ekipamendua</i>	3	256.238	28	1.466.785
<i>Azpiegiturak</i>	7	666.820	37	7.640.723
MIKROFINANTZAKETA	5	39.500	1.256	3.396.042
BESTERIK	-		36	2.942.570
<i>Garapenerako lankidetzak</i>			22	1.624.487
<i>Mikrofinantzaketa Erakunde bidez</i>			14	1.318.083
GUZTIRA	149	13.339.135	6.237	250.287.308

3.2. Ekintzailetzarako laguntza

BBK Fundazioaren ekintzailetzako laguntza-zerbitzuak BBK Gazte Lanbidean Fundazioa zenak 1998an ezarritako jarduerari jarraipena ematen dio. Hala, negozio berri bat edota lanpostuak sortuko dituen bizitza-proiektu berri bat garatu nahi duten pertsona guztiei jardun horretan laguntzeko tresna bat eskaintzen die.

Programa horren bidez, **autoenpleguko ekimenak sortzen lagundu nahi da**, ekintzaileei prozesuaren faserik kritikoenean lagunduz: heltze-aroa, bideragarritasun-azterketa, negozioa eratu eta abian jartzea. Laguntza hori kudeaketa-tresna multzo baten bidez egiten da. Era integralean, enpresa-proiektuen alderdi guztiak aztertu, balizko ahultasunak antzeman eta ekintzaileen euren gaitasunak osatzen dira.

14 urtean, programa horrek 4.453 esku-hartze zuzen izan ditu ekintzailetza-proiektuetan. Horien bidez, 5.000 pertsona inguruk, horietatik gehienak gazteak, lan-merkatuan sartzeko aukera izan dute, dela euren kontura, dela inoren kontura.



Proiektu horren oinarrian dagoen **lan-ereduak pertsona eta proiektu bakoitzaren errealitatera egokitutako aholkularitza-eredu berezia ahalbidetzen du**. Emandako irtenbide guztiek negozio-idea bakoitzaren azterketa pertsonalizatua dute abiapuntu, eta abian jarri eta lehen urteetan laguntza jasotzen dute. Aipatu egin behar da, baina, BBK Fundazioaren ekintzaileentzako laguntza-zerbitzua ez dela finantzaketa hutsera mugatzen. Jarduera ekonomikoa abian jarri ahal izateko finantzaketa funtsezkoa den arren –eta, ziurrenik, haien izaera dela eta, BBK-k ereduari eman ahal dion balio erantsi nagusia ere bai–, eskarmentuak erakutsi digu **aholkularitza- eta jarraipen-lana** ezinbestekoa dela proiektuak arrakasta lortu ahal izateko. Eredu hori babestutako proiektu bakoitzera egokitzen da, eta honako etapa hauetan jarduten du:

- ✓ **Idea lantzea eta bideragarritasun-azterketa** eta, horren barruan, enpresa-aholkularitza, bideragarritasun-plana prestatzea eta aholkularitza teknologikoa.
- ✓ **Finantzaketa baldintza berezietan:** epe laburrerako eta luzerako finantzaketa, sustatzaileentzako maileguak edo enpresa-maileguak, aktibo finkoak eta zirkulatzailak.
- ✓ **Abian jartzen den bitarteko laguntza:** aholkularitza-prozesuak, eratzeko tramiteetan eta tramitazio ofizialetan.
- ✓ **Gestoria-alorreko laguntza eta, horren barruan, doako zerga-, lan- eta kontabilitate-aholkularitza** lehen urtean, horren premia duten proiektuetan.
- ✓ **Enpresaren jarraipena**, jardunean hasi eta lehen urteetan.

Ekintzaileentzako laguntza-zerbitzu hori laguntzaile-sare trinko batean bermatzen da: unibertsitateak, ikastetxeak eta Bizkaiko Behargintzen sarea bera. Duen garrantzia dela eta, lankidetzaren esparru horretan azpimarratzekoa da Deustuko Unibertsitatearekin batera "DeustuLan" Laneratze Zentroaren bidez garatutako programa, **autoenpleguko ekimenak** eta **enpresa berriak sortzea** sustatzeko.

3.3. Gizarte-ekonomiako ekimen berrientzako laguntza

BBK Solidarioa proiektuaren beste erreferentzietako bat gizarte-ekonomia zabaldu eta indartzea da, bera delako gizarte-bazterketaren aurrean ahultasun-egoeran dauden pertsonak lan-merkatuan txertatzeko tresnetako bat. Honako hau da alor horretako BBKren lehen tasuna: gizarte-ekintzaileak sortu eta sendotu ahal izateko baldintzak ipintzea, **enplegu egonkor eta kalitatezkoa** sortzeko moduan. Azken batean, errentagarriak izateaz gain gizarte-inpaktu positiboa duten jarduera ekonomikoak sustatzea. Izan ere, lanpostuak sortzeaz gain, langileen ongizate orokorra eta ahalduak dakarren soberakin ekonomikoa ere sortzeko gai dira.

Ildo horretan kokatzen dira gizarte-ekonomiako erakundeak, laneratzeko enpresak eta, orokorrean, ondasun edo zerbitzuak sortzeaz gain, euren xede sozialean baztertutako pertsonak gizartearen eta lanean txertatu eta enplegu arruntera bideratzea jasotzen duten enpresa guztiak.

Edozein finantza-jarduerarako ingurune txar honetan, eta Kutxabankekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmenari esker, BBK Fundazioak guztira 3,5 milioi euro eman dizkio kolektibo horri, neurrira egindako finantzaketa bigunen bidez.



3.4. Aurrezki solidarioa sustatzea

Gizarte-banku solidarioen zirkuitua ezartzea da aurrezki solidarioaren ekarpena. Horri esker, euren aurrezki eta inbertsioei gizarte-osagaia eransteko aukera eskaintzen zaie gizarteari eta garapen iraunkorarekin konprometitutako pertsona guztiei. Formula horrek gizarte- eta ekonomia-errentagarritasuna bateratzen ditu eta, gainera, inbertsiogileek zuzenean lagun dezakete gizarte-proiektuetan, aurrezki-rako/inbertsiorako hiru produkturen bidez:

- ✓ **Gordailu Solidarioak.** Merkatu-interesa duten epe finkorako ezarpenak dira, Kutxabankek bermatuta, eta gizarte-inpaktu handiko proiektuak finantzatzeko erabiltzen dira. Gordailu horiek kontratatzen dituzten pertsonak BBK Fundazioaren Elkartasun Fondoari ematen diote interesen zati bat, eta BBK Fundazioak ekarpen horren bikoitza emateko konpromisoa hartzen du.
- ✓ **BBK Solidarioa Inbertsio Fondoa.** Fondo horren bidez, Kutxabankek euren posizioak dibertsifikatzeko aukera eskaintzen die aurrezkiari izaera solidarioa eskaini nahi dioten inbertsiogileei. Fondo mistoa da: % 25 errenta aldakorra eta % 75 errenta finkoa, betiere parametro etikoen bidez zuzenduko dena. Hala, inbertsioak egiteko unean, fondoa kudeatzen duen sozietateak irizpide sorta bat ezartzen dio bere buruari, batzuk baztergarriak eta beste batzuk baloraziokoak. Elkartasun-izaera horren barruan, kudeatzaileak kudeaketa-gastuen %0,7 bideratzen du Elkartasun Fondora.
- ✓ **Batuetabatu Aurrezki-plan solidarioa.** Lehen urtetik gorako likidezia duen finantza-produktua, aldi berean aurrezkiari helburu solidarioa eskaini nahi dioten pertsonen zuzenduta. Planaren titularrak berak erabakitzen du lortutako interesen zenbatekoa (%20 eta %100 bitartean) emango dien BBK Fundazioak babestutako gizarte-proiektuei.

✓ *Pasibo Solidarioa guztira 2012/12/31n*

	Gordailu Solidarioa		BBK Solidarioa FI
	ERAG. KOPUR.	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA
Sinatutako kontratuak	8.904	160.079.198	-
Indarrean dauden kontratuak	1.393	18.794.797	5.443.899



3.4.1. BBK Fundazioa Solidaritate Fondoa

Elkartasun Fondoaren bidez, gizarte-ekonomiako ekimenei eta, orokorrean, **gizartean baztertuta geratzeko arriskua duten kolektiboetan inpaktu positibo egiaztagarria duten proiektuei diruz laguntzeko aukera dago.**

Elkartasun Fondoaren sarrera-irteerak 2012an

		ZENBATEKO A
SARRERAK	Gordailugilea	1.016.574
	BBKren Gizarte Ekintzaren ekarpena	2.033.147
	Onuradunak	266.212
	Beste dohaintzagile batzuk	63.719
	BBK Solidarioa IF	255.508
	Fondoaren interesa	97.371
	GUZTIRA	3.732.513
IRTEERAK	Gizarte-proiektuak	636.227
	GUZTIRA	3.296.196
SALDOA		436.317

Elkartasun Fondoak gordailugile solidarioen dohaintzak jasotzen ditu, euren interesen zati bat gizarte-proiektuetan erabiltzeko ematen dituztelako. BBK Fundazioak, bere aldetik, bezeroen elkartasun-dohaintzaren bikoitza ematen du, Fondo horretarako ekarpen berezi moduan.

2012an zehar, Fondo horren baliabideak erabiliz lagundu da Bilboko Emaus Bilbao SCISek sustaturiko Aparka proiektua (memoria honetako 10.6 atalean deskribatzen da).

3.5. Beste jarduera batzuk

3.5.1. Bidezko merkataritza

Eskala globalean eta nazioartean ondasun eta zerbitzuen produkzioaren alorrean **transakzio ekitatibo eta zuzenak** sustatzen dituzten ekimen guztiekin konprometituta dago BBKren Gizarte Ekintza. Gure inguruan bidezko merkataritza ezagutarazi eta sustatzeko sentsibilizazio-programetan eta kontsumo arduratsua bultzatzeko prestakuntza-programa pedagogikoetan parte hartzen jarraitu dugu 2012an ere.

Urte horretan, hainbat udalekin batera egindako lankidetzan gauzatu da bidezko merkataritzako ekimenetarako laguntza. Zehazki, Bilboko Bidezko Merkataritzaren 10. Astea antolatzen lagundu dugu, eta Getxoko eta Barakaldoko Udalekin batera GGKEen azokak egin dira.



Urte horretan bertan, aurrekoetan bezala, bidezko merkataritzari loturiko hainbat erakundek Bilboko Santo Tomas Azokan hartu dute parte, euren produktu-sorta zabala dastatzeko aukera eman duen txosnan.

BBKn zeharka **ekitatearen, gizarte-justiziaren eta iraunkortasunaren** balioak txertatzeari esker, bidezko merkataritzaren oinarrian dauden printzipioek Gizarte Ekintzaren esku-hartzeetan eragin dute, batez ere hezkuntza-izaera dutenetan. Alabaina, programa zehatz

batean, Errioxako Briñasko BBK Zentroan garatutako "Herritartasuna, Elkartasuna eta Kooperazioa" programan, era berezian lantzen dira bidezko merkataritzari zuzenean loturiko balio eta ezagutzak. Bertan, jolaseko eta prestakuntzako dinamiken bidez, gazte parte-hartzaileek **ekoizteko eta merkaturatzeko ordezkoko ereduak** identifikatzen ikasi eta kontsumo arduratsuko ohiturak aztertu eta barneratzen dituzte.

Beste alde batetik, azken urteetan, BBK-k bezero moduan erosten dituen produktu eta zerbitzuetan **gizarte-klausula sorta** bat ezarri da, behin betiko. Halatan, aurten berriro ere, Intermon-Oxfam, Emaús eta Mercadeo gizarte-erakundeek banatutako bidezko merkataritzako artikulu multzoa sartu da Kutxabank puntuen katalogoan. Horrela, gure bezeroek produktu horiek ezagutu eta eskuratzeko aukera izan dute.

3.5.2. Garapenerako lankidetzak

Garapenerako lankidetzan gure eremua zehazteko, **finantza-sistemako bazterkeriaren aurkako borrokan** eskaini dezakegun balio erantsian oinarritzen gara BBKn.



Zentzu horretan, Euskadiko hainbat GGKEri eskainitako finantzaketaren bidez, BBKren Gizarte Ekintzaren esku-hartzea **produktzio-sistemak hobetzen** eta garapen-bidean dauden herrialdeetako lehen sektoreko produktuak merkaturatzen laguntzera bideratzen da batez ere. Mailegu horietako batzuk BBKren Gizarte Proiektuetarako Laguntzen deialdiaren kargurako laguntza ekonomikoekin osatu dira.

2012an, honako kreditu-lerroak egon dira abian:

- ✓ **Proclade Yanapai Fundazioarekin** lankidetzan, 300.000 dolarreko finantzaketa-lerroa ireki da Agroexportadora Maquita, Ekuadorren kakao merkaturatzen duen kooperatibarentzat. Finantzaketa biguna eskuratuz, laborantza-prozesuak hobetu eta nekazariak aurretik ordaintzeko aukera dute; gainera, kooperatibaren kakao merkaturatzeko, industrializatzeko eta esportatzeko bideak zabaldu dira.
- ✓ **Intermon Oxfamekin** lankidetzan, 35.000 dolarreko kreditu-kontu bat ireki da Ekuadorreko El Oro kreditu-kooperatiba komunitarioak indartzeko. Programa horri esker, landa-eremuko emakumeak biltzen dituzten kooperatiba horiek finantza-gaitasun handiagoa dute, eta premia berezian dauden pertsonak errazago eskuratzen dute kreditua (batez ere guraso bakarreko familiak, langile informalak, merkataria eta nekazaritza-ekoizleak).
- ✓ **Elkarkredit-Mundu** batekin lankidetzan, El Salvadorreko Procomes Komunitate Proiektuen Elkartearentzako kreditu-lerro bat ireki da, gaur egun kreditu-sistema arruntetik kanpo dauden ekonomiako sektore informaleko 300 mikroenpresari eta nekazari biziraupeneko ekonomiatik irten eta enplegua eta autoenplegua sortu ahal izan dezaten. Maileguak taldeari ematen zaizkio; kreditua eman ondoren, taldeak, aholkulariaren laguntzaz, inbertsioaren jarraipena egiten du. Elkarkredit-Mundu Batekin batera hori ere, finantza-sistema arruntetik kanpo dauden emakumeek kreditua eskuratu dezakete, Nikaraguako hainbat herritan ekimen kolektibo eta komunitarioak garatu ahal izateko.

Antioquía-Medellin, AM-BBI Bizkaia-Bilbo Programa. 2012an erakunde publiko eta pribatuen arteko sareko lankidetzak zuzeneko ekimen aitzindari hori burutzen jarraitu da. BBK-k ez ezik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Hegoa-Nazioarteko Garapen eta

Lankidetzarako Ikasketa Institutuak ere hartzen dute parte. Kolonbian, Antioquiako Gobernuak, Medellingo Udalak eta Antioquiako Unibertsitateak bultzaturiko proiektua gauzatzen dute. Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBK-k lau urtez finantzatu dute programa hori, Medellingo 8 eta 9 komunitateko eta Kolonbiako Antioquia Departamentuko Iparreko eta Mendebaldeko beste sei udalerritako gizon eta emakumeen bizitza-kalitatea nabarmen hobetuko duten gizarte-, hezkuntza- eta ekonomia-garapenerako aukerak sortzeko asmoz. Proiektu horren zeharkako parametroak aipaturiko jarduera-guneetako giza eskubideekin, genero-berdintasunaren aurrerakuntzarekin eta emakumeen jabekuntzarekin lotuta daude.

3.5.3. Laguntza Humanitarioa

Aurreko urteetan bezala, BBK-k egoera humanitario berezietan lagundu du, batez ere bizitza asko galtzea eta oinarrizko azpiegiturak narriatzea eragin duten hondamendi naturalen kasuan. Alor horretako esku-hartze nagusia **erantzun solidarioko mekanismoak** aktibatzea izan da: horretarako irekitako kontuetan fondoak bildu eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera jardun du, bildutako fondoak batu eta **eraginkortasunez erabili eta ekitatez banatuko** direla bermatzeko.

Ikuspegi horretan oinarrituta, 2012an **Italiako Emilia Romagna hondatu zuen lurrikaran** kaltetutakoen oinarrizko premiei erantzuteko laguntza-kontu bat ireki zen.

Beste alde batetik, bertako mintzakideak identifikatu eta fondoak erabilera adostu ondoren, aurreko urteetan Somalian, Haitin eta Txilen aparteko egoerak arintzeko bildutako soberakinak likidatu ziren.



4. BBKren Beka Programa

Aurreko urteetan BBK Gazte Lanbidean Fundazioaren bidez egiten ziren jardueraren oinordekotza hartu du programa horrek, eta gaur egun gazte-langabeziaren aurka BBKren Gizarte Ekintzak egiten duen jardunaren aitzindaria da. Prestakuntza da kualifikazio profesionalaren gakoa eta, beraz, horixe da pertsonak lan-merkatuan bidea egiteko tresnarik nagusia. Azken hogeitau urteetako lan-ingurune zailean, langabezia eta prekaritatea nagusitu direlarik, ezagutzen oinarritutako gizarte lehiakorren abiatzekotan, enpresen premietara egokitutako **kalitatezko prestakuntza unibertsalki eskuratzea** ezinbesteko tresna da.

4.1. Lan-praktikarako beka-programa

Langabezian dauden langile tituludunek prestakuntza-praktika ordainduen bidez lan-esperientzia eskuratzea bultzatzeko, joan den 2012an BBK-k orotariko lankidetzahitzarmenak sinatu ditu enpresa-elkarteekin eta instituzioekin. Programa horiei esker, gazte tituludunek **lehen lan-esperientzia** izan dute, jakinez enpresek egindako lan-kontratuen %80 aurretiko ezagutzen oinarritzen direla.

2012ko programa horren berrikuntza nagusia praktikak atzerrian egiteko beken lerroa indartzea izan da, batez ere *BBK Global Training* programaren bidez eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan.



Hala, BBK-k emandako 306 lan-praktiketarik %51 **Bizkaiko** enpresetan egin dira, eta %49 atzerriko enpresetan, honako xehakapen honen arabera:

4.1.1. Bizkaiko enpresetako praktikak:

- ✓ 57 beka **BBK-Deustulan** programaren bidez, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan. Programa horrek Espezializazio Ikastaroa hartzen du, eta horren ondoren 3 hilabeteko praktika ordainduak egiten dira enpresaren edo instituzioren batean.
- ✓ 50 beka **CEBEKekin lankidetzan**, Bizkaiko enpresetan 6 hilabeteko praktika ordainduak egiteko.
- ✓ 40 beka **Ekonomisten Euskal Elkargoaren bidez**, kolektibo horri loturiko Bizkaiko enpresetan 6 hilabeteko praktika ordainduak egiteko.
- ✓ 20 beka Sestaoko Enplegu Plana programaren barruan praktika ordainduak egiteko. Horien bidez, aurretiko lan-esperientziarik izan gabe, unibertsitate-mailako edo lanbide-heziketako titulazioa duten Sestaoko gazteek lan-merkatuan lehen sarrera egiteko aukera izango dute. Programa horrek "Enplegurako kompetentzia pertsonalak" izeneko zeharkako prestakuntzako 50 orduko modulu bat ere hartzen du. Programa bera eta bekadunen hautaketa 2013an zehar egingo da.

4.1.2. Praktikak atzerriko enpresetan:

- ✓ 57 beka **Global Training** programaren barruan, Kutzarekin, Vital Kutzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan. Programa hori unibertsitate-mailako edo goi-mailako Lanbide Heziketako titulazioa duten gazteei zuzentzen zaie, eta 6 edo 9 hilabetez enpresa-praktika ordainduak egiteko aukera eskaintzen du, Belgikan, Italian, Norvegian, Mexikon, Alemanian, Txilen, Suedian, Polonian, Argentinan, Islandian, etab. Deialdi horretan, Enpresa Kudeaketa eta Zuzendaritzako, Enpresa Zientzietako, Ikus-entzunezko Zientzietako, Telekomunikazioen Ingeniaritzako, Irakasle Eskolako, Ingeniaritza Teknikoko, Kazetaritzako, Arkitekturako, Publizitate eta Harreman Publikoetako prestakuntza duten gazteak aukeratu dira.
- ✓ 32 beka **Martxan VIII** programaren barruan. Programa horretan, Leonardo da Vinci Mugikortasun Programei laguntzeko Deialdiaren barruan, praktikak egiten dira Europako enpresetan. Iaz, honako hauek izan dira bekadunen titulazioak: Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa eta Zuzendaritza, Arkitektura, Kimika, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, eta Turismoa eta Arte Ederrak. Bekak gauzatu diren herrialdeak, berriz, Malta, Erresuma Batua, Italia, Txekiar Errepublika, Portugal eta Alemania izan dira.
- ✓ **Leonardo da Vinci-EPEZ** programako 50 beka, EHUrekin lankidetzan, eta Europar Batasuneko Leonardo programaren barruan.



4.2. Prestakuntza Espezializatua Eskuratzeko Beka Programa

2012an ere, Unibertsitate Masterrak egiteko 2011n abian jarritako beka-programari eutsi dio BBK-k, gure gazteen **kualifikazioa eta, beraz, enplegarritasuna hobetzeko** apustu estrategikoaren baitan. Oraingo honetan, **Deustuko Unibertsitatean, EHU eta Bilboko Merkataritza Ganberan** gradu-ondoko prestakuntzak egiteko 52 beka izan dira deialdian.

Landutako esparruak, berriz, Zientzia Ekonomikoak eta Enpresa, Ingeniaritza, Arkitektura, Ingurumena, Berrikuntza, Medikuntza, Gizarte Zientziak eta Psikologia izan dira.

Bekak emateko, Kutxabankeko bezeroa izan beharra zegoen, eta bikaintasun akademikoa ez ezik, familia-unitatearen premia ekonomikoak ere hartu dira kontuan. Diru-laguntzek gradu-ondoko ikastaroen azken prezioaren % 60 estali dute gehienez, pertsona bakoitzeko 5.000 euroko mugarekin.

Beste aldetik, **Bidera Programaren** barruan eta EDE Fundazioarekin lankidetzan, 2012an Hirugarren Sektorearen esparruan prestatzeko 50 beka eman dira, gizarte-inpaktu positiboa sortzeko gaitasuna duten diru-irabazi asmorik gabeko erakundeak zuzentzeko behar diren konpetentziak garatu ahal izateko.

4.3. Prestakuntza Osagarrirako Beka Programa

Aurreko urteetan bezala, BBK-k beka sorta handia eskaini du **Erasmus Programaren** barruan ikasleak Europar Batasuneko estatuen barruan mugitzen laguntzen. Jarduketa hori Kutxa Fundazioarekin eta Vital Kutxarekin batera egin da. BBK-k 366 beka eskaini ditu, horietatik %90 Deustuko Unibertsitateko eta EHUko ikasleentzat.

Berrikuntza moduan, 2012an **BBK-Deustu Bikainari** izeneko programa berri bat jarri da abian, maila akademiko altua eta egoera ekonomiko eskasa duten gazteek goi-mailako prestakuntza eskura dezaten. Deialdi horretan 60 beka eskaini dira, besteak beste Enpresa Kudeaketa eta Zuzendaritza, Hizkuntza Modernoak, Psikologia, Ingeniaritza, Zuzenbidea, Gizarte eta Giza Zientziak eta Lehen mailako Hezkuntza ikasiko duten gazteentzat. Programak matrikularen zenbatekoaren %80 ere ordaindu dezake, eskatzailearen egoera ekonomikoaren arabera.

4.4. Ikerketarako Beka Programak

2011n hasitako beken arlo berri honen barnean, iaz BBK-k ikerketarako bi beka berri eskaini zituen *“gaixotasun arraroak”* deiturikoekin lotuta:

✓ **Dravet Sindromea Ikerketarako Beka** BBK Fundazioak Dravet Sindromea Fundazioarekin eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren Severo Ochoa Biologia Molekularreko Zentroarekin elkarlanean 2012. urtean bi urteko iraupena izango duen beka ordaindua eskaini du, eta jatorri genetikoak duten epilepsiaen eremuan ikerketa-lerro berriak garatzea ahalbidetuko du.

✓ **WOP Ikerketarako Beka.** Gaixotasun neurodegeneratiboekin loturiko terapietan ikerketa-proiektuak sustatzeko eta finantzatzeko lan egiten duen Walk on Project Elkartearekin izandako lankidetzazabalen markoan, BBK-k bi urteko iraupena izango duen beka bat eskaini du eta aukera eman du doktoratu ondoko ikertzaile bat txertatzeko nazioarteko proiektu batean, hain zuzen ere, ama-zelula eta botika eragingarrien tratamendu konbinatuei buruzko ikerketak egiten dituen gaixotasun desmielizanteak dituzten pazienteentzat.



Horrekin batera eta ingurumenarekin loturiko ikerketa-eremu berri bat irekitzeko asmoz, 2012. urtean BBK-k Aranzadi Zientzi Elkartearekin lankidetzan abian jarri du **BBK-Urdaibai Bird Center** izeneko proiektua. Horri esker Natura eta Ingurumenarekin loturiko ikasketetan

tituludunak diren 5 lagunek ikerketa-praktika ordainduak egingo dituzte Arteagako Urdaibai Bird Centerreko instalazioetan. Praktika hauen helburua da ezagutzak eta trebetasunak eskuratzea habitaten kudeaketa eta erabilerarekin, zientziaren hedakuntzarekin eta naturguneen balio eta baliabideekin zerikusia duten eremuetan. Prestakuntza praktiko honen xedea “enplegu berde”, ikerketa, ekoturismo eta ingurumen-aholkularitzarekin zerikusia duten arloetan enplegua sortzea da.

4.5 Arte eta Kultura alorreko Sormena Sustatzeko Beka Programa

2012. urtean BBK-k artista eta sortzaile gazteak babesteko alor honetan 65 beka eman ditu guztira:

- ✓ 32 beka proiektu artistikoak garatzeko **Bilbao Arte Programaren** barruan. Horietatik 10 sormen artistikorako guneak aldi baterako lagatzeko izan dira; 10 beka ekoizpen-proiektuetarako, besteak beste, grabatuak, serigrafia, teknologia berriak, eskultura, argazkilaritza eta filmatzeko platoak; 4 lankidetzeta-beka ekoizpen artistikoko tailerretan laguntzaile gisa aritzeko eta 8 beka egoitza-ostaturako Fundazioko artisten artean partekatutako etxebizitzan.



- ✓ 33 **EGO** beka: aukera eman die 33 gazteri Euskal Herriko Gazte Orkestran parte hartzeko urtebetez, nazioarteko ospea duten irakasleekin lan egiteko, eta horrela, esperientzia handia hartu orkestra eta kamera-musikaren eremuan.



4.6. Bilbao BBK Talent

Programa hau BBK-Gizarte Ekintzak Bizkaiko ekonomia- eta gizarte-garapenaren alde duen apustu estrategikoaren barruan txertatzen da, **talentuak erakartzearekin** loturik. Ikuspegi horretatik, BBK-k gizarte- eta ekonomia-ehunean talentuaren berrikuntza eta garapena sustatzeari begira dauden ekimen guztiekiko konpromisoa aitortzen du, bidezko eredu soziala, harmonikoa eta lehiakorra eraikitzeko ezinbesteko tresnatzat ulertuta.

BBK Talent programa **bikaintasun akademiko handia duten ikertzaileak hartzera** bideratzen da, EAE kanpotik datozenak, eta Bizkaian finkatuko direnak irakaskuntza- edo ikerketa-jarduerak egiteko era ez-iraunkorrean. Balizko onuradunen espektro zabalari programaren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna bermatzeko xedez, Bilbao BBK Talent-ek **aliantza sare** estu bat ezarri du Bizkaiko zentro akademiko eta ikerketa-gune publiko eta pribatuekin.



Programaren barruan ikerlari eta haien familien esku jarri da zerbitzu multzo bat, Bizkaian egongo diren denbora tartean ingurunearekiko egokitzapena ahalbidetzea helburu duena. Zerbitzu horien artean nabarmentzekoa da **banakako ostatua ematea** BBK Sarriko Zentroarekin egindako hitzarmen baten bidez. Horren ondorioz, Bilbao BBK Talent programaren eskura jarri dira erabat ekipatuta dauden 32 apartamentu.



4.7. BBK Abandoibarra

2012an BBK-k berritu egin du UPV-EHUri lagata zion duela gutxi eraikitako eraikin bat, BBK Abandoibarra izenekoa, **Unibertsitateko Paraninfo** gisa erabiltzeko. BBK-k guztiz ordaindutako 35 milioitik gorako inbertsioaren ondorioz, instalazioek eraikitako 9.000 m²-ko azalera dute, era honetan banatuta: 450 lagun hartzeko moduko areto nagusia, Errektore eta Unibertsitateko Gobernu Kontseiluarentzako lehenengo solairua, 161 lagunentzako hitzaldi-areto bat, prentsaurrekoetarako gela bat bulegoetarako 64 lekurekin, 4 erakusketa-gela eta zerbitzu orokorretarako bulego batzuk, eta horrez gain, lurrazpiko aparkaleku bat 31 ibilgailuentzat eta biltegi batzuk.

5. Desgaitu eta Mendekoei laguntzea

Orain dela 50 urte baino gehiago hasi zen BBK arlo honetan esku hartzen. Beraz, BBKren gizarte-ekintzaren **bloke nagusietako** bat da.

Desgaitasun- eta mendetasun-fenomenoak egoera-espektro oso zabala hartzen du, eta lehenengo eta behin gaia mugatzea eskatzen du, esku-hartzearen xede diren taldeak ahalik eta zehatzen ezarri ahal izateko. Desgaitasun- edota mendekotasun-egoeran dauden pertsonak era honetan defini ditzakegu: jaiotzetiko jatorridun edo zahartzearen ondoriozko gabezia fisiko, psikiko edo intelektualekin loturiko egoeretan, eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko etengabeko laguntza behar duten pertsonak.

Azken hamarkadetan familia-ereduetan eman diren aldaketek, ohiko zaintzailea zen emakumearen laneratze progresiboak eta azken aldaketa soziologikoei gehiago edo gutxiago zabaldua dagoen kontzientziaztea ekarri dute desgaitasuna duten pertsonen babesa ezartzeko beharraz, baita bizimodu duina eta ahalik eta autonomiadun handienarekin egiteko aitortza ere. BBKren gizarte-ekintza mugitzen den eta mugitu behar den ingurunea ondokoek markatzen dute: batetik, administrazio publikoen esku-hartzeak, desgaitasuna eta mendekotasuna dutenen eskubide subjektiboen politika bermatzaileen inplementazioaren markoan; eta bestetik, kolektiboak eta bere inguruneak hezkuntzari, laneratzeari eta aisialdi normalizatuaren parte hartzeari dagokionez dituen itxaropen berrien sorrerak.

Bestalde, ezin utzi aipatu gabe azken urteetan sortu den fenomeno berri bat, autore batzuek “agerpen isila” deitzen dutena, bizi-itxaropena handitzearen ondorioz gizarte gisa aurre egin behar diegun erronka berriei dagokiena. Mendetasun-egoeren handitze nabarmenari buruz ari gara, egoera konplexuak sortu dituen, esate baterako mendetasun-maila bat izanik mendetasun handiagoa duten beste batzuek arduratu behar direnen egoera. Gaur egun sarri ematen den egoeretako bat da, adibidez, guraso nagusiak desgaitasunen bat duten seme-alabekin, edo adimen-desgaitasuna duten pertsonak guraso nagusiak zaintzen dituztenak.



Hori guztia nahikoa larria ez balitz, egungo krisi ekonomikoaren egoerak BBKren politiken definizioan kontuan izan beharreko elementu berri batzuk ekarri ditu, irabazi asmorik gabeko gizarte-entitate den aldetik. Batetik, mendetasuna duten pertsonentzat eta bere zaintzaileentzako laguntzei loturiko aurrekontu publikoen jaitsiera orokorra; baina bestetik, enpleguaren suntsitzearen ondorioz, talde berri baten sorrera, lan egiteko moduan dagoena, eta behin-behinekoz edo betikoz, erabat libre dagoena bere inguruan mendetasuna duten senideak zaintzeko.

Testuinguru hain konplexu honetan inoiz baino beharrezkoagoa da beharren eta lehentasunen azterketa sakona egitea. Era horretan, BBK-k ekimen publiko eta pribatuak estaltzen ez dituen kolektibo horien arreta-guneak aurkitu ahal izango ditu, betiere bere gizarte esku-hartzearen **osagarritasunaren** printzipioa mantenduz.

2012. urtean, egoera ekonomiko larria izan arren, BBKren esku-hartzea mantendu egin da, hiru bloke handitan multzokatuta:

- ✓ Mendetasuna dutenen gaineko esku-hartze zuzena, laguntza-programen bidez.
- ✓ Adimen-desgaitasun eta gaixotasun mentalaren eremuetan esku-hartzea, batez ere Ola BBK eta Eragintza eta Argia fundazioen bidez.
- ✓ Desgaitasun- edo mendetasun-egoeran dauden pertsonak laguntzen dituen gizarte-ehunarekin lankidetzat. Entitate mota hori indartzea eta bere jardueran laguntzea da, eta jarraituko du izaten, gure helburu estrategiko nagusietako bat.

BBK Zentro eta Programen erabiltzaileak

ERABILTZAILEAK	
Ola BBK zentroa	
Helduarorako Zentroa	30
SAIOA Zerbitzua (Informazioa, Orientazio eta Laguntza)	4.506
Lan Orientabiderako Zerbitzua	585
Zereginetarako Tailerra eta Enplegu Zentro Berezia	120
Aldi Baterako Egoitza	488
Eguneko Zentroa	23
Asteburuko atsedeen-programa	74
ERAGINTZA FUNDAZIOA	506
ARGIA FUNDAZIOA	264
ASPALDIKO FUNDAZIOA	585
BEGOÑAKO APAIZ OHORAGARRIEN EGOITZA	25

5.1. Ola BBK zentroa

BBKren Gizarte Ekintza beti izan da erreferentziako entitate bat, adimen-desgaitasuna dutenen arretan aitzindaria. Bai hezkuntza-erantzunean, bai lan babestuen garapenean, BBK-k 50 urte baino gehiago daramatza arlo honetan lan egiten duten pertsona eta entitateei laguntzen. **Erreferente izateko** gaitasun hori mantendu nahian, eta sistema publikoak hezkuntza-funtzioa beregain hartu ondoren, adimen-desgaitasuna duten pertsonak eta beraien familiek dauzkaten benetako beharrianak zeintzuk diren jakiteko etengabe jarraitzen dugu ikertzen. Testuinguru honetan gure esku-hartzeak bi arlotan sakontzen jarraitu behar duela berresten dugu: gizartearen **zahartze** orokorra eta pertsona desgaituen zahartze espezifikoa. Gizarteko errealitate berrietarako baliabide egokiak txertatzeko erronka eta kolektibo honen **laneratzean aurrerapausoak** emateko beharra izango dira datozen urteetan gure jardueraren oinarriak.

Eredu honen adibiderik nagusia **BBKren Ola Zentroa** da, gaur egun, oraindik, beharrian berriei erantzuteko, instalazioen eta zerbitzuen eraldaketa eta egokitze-prozesuan jarraitzen duena. Bertan, alde batetik, pertsona desgaituei zuzeneko laguntza emateko proiektuak aurrera eramaten dituzte, eta, bestetik, desgaituen familiei eta arlo honetan lan egiten duten gizarte-eragileei babesa ematen zaie. Ola BBK zentroan garatzen diren programak egonkorrak izan daitezten eta gizarte-eragin handiagoa izan dezaten, BBK-k sektore honetan protagonista den administrazio publikoarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, eta arlo honetan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-entitateekin **era koordinatuan** egiten ditu esku-hartze hauek.

Ekipamendu honen helburua pertsona desgaituen beharriari **erantzun integrala** ematea besterik ez da, eta arreta, ikerketa eta balio erantsi handiko zerbitzuak ematen aitzindari izaten jarraitzea, bai desgaituentzat beraietzat, eta baita beraien zainketaz arduratzen direnentzat ere. Ikuspegi horretatik 2012an bi zerbitzu berri jarri dira abian:

- ✓ **Eguneko zentroa**, lan-merkatu babestuan sartzeko oinarritzko gaitasunik gabeko adimen-desgaitasuna dutenei zuzendutako programa. Gorabide Elkarteak kudeatu

eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera finantzatutako zentro berri hau familia-zaintzaileen kontziliazioari begira eta desgaitasuna duten pertsonen zuzenean artatzeari begira lan egiten du, zenbait trebetasun sustatuz eta garatuz, besteak beste, gizarteratzeak, norbere burua zaintzeak eta psikomotoreak. 2012. urtean Eguneko Zentroak 22 erabiltzaile iraunkor izan ditu, eta 2 aldi baterako.

- ✓ **Asteburuko atsedeen-programa:** apirilean atsedeen-zerbitzu berri hau egunez ere irekiko da. Abian jarri izanak 74 lagun ezberdini 701 atentzio ematea ahalbidetu du.

Zentroan dagoeneko finkatuta dauden gainerako programek beren jarduerak mantendu egin dituzte:

- ✓ **Aldi Baterako Egoitza.** Aldi Baterako Egonaldietarako Egoitzak beharizan berriei aurre egiteko zerbitzu adierazgarriena izaten jarraitzen du, hain zuzen, bizi-itxaropena handitu delako eta familia-egituretan aldaketak eman direlako. 2006ko ekainean ireki zenetik, desgaituak beraien kargu dituzten familiei zuzendutako atsedena hartzeko zerbitzu honek, 488 pertsona desberdin artatu ditu, guztira 4.212 eskaera, 2.134 egonaldi.
- ✓ **Helduarorako Zentroa** aldi baterako beste baliabide bat da, adimen-desgaitasuna dutenen bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz haien zaintzaileen inguruetan sortzen diren behar eta erronkei erantzun nahian sortu dena. Zentro honek arreta zuzena eskaintzen die adinean gora doazen eta dagoeneko oinarrizko trebetasunik ez dutenei lan-eremuan jarraitu ahal izateko, eta beraz, bestelako gizarteratze-jardueren beharra dutenei. 2012an behin betiko zerbitzuetara 3 lagun bideratu dira eta berri bat sartu da, guztira 30 erabiltzaile egonkorren talde bat mantenduz.
- ✓ 2012an desgaitasuna duten familiei zuzendutako **SAIOA Laguntza, Informazio, Orientazio eta Laguntza Zerbitzuak** 4.506 espediente artatu ditu. Horrez gain, 509 pertsona ezberdin artatu ditu bakarka, guztira taldea osatzen duten profesionalak egindako 1.638 esku-hartze zuzenen barruan.
- ✓ Bestalde, **Lan Orientabiderako Zerbitzuak** bere horretan mantendu du bere jarduera-maila, desgaitasuna dutenei nabarmen eragin dien langabezia-hazkunde ikaragarriaren testuinguruan. 2012an programa honen bidez 585 elkarrizketa egin dira eta 423 lan-kontratu kudeatu dira Enplegurako Zentro Bereziatan.
- ✓ **Zereginetarako Tailerrak eta Enplegu Zentro Bereziak**, krisialdian gauden arren, beraien produkzio-jarduera mantendu dute, 120 lanposturekin.

	Adimen-desgaitasuna		Adimen Nahastea		Garezur. Traumat.		Zentzumen Desg. Fisikoa		Desgaitasunik gabe		GUZTIRA	
Elkarrizketak	111		46		1		342		85		585	
Kontratuak	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
	21	10	22	17	0	0	30	9	242	72	315	108

Programa hauez gain, Prestakuntza Jardunaldiak antolatu dituzte Zentroan dauden entitateen artean eta gizarte- eta enpresa-eremu ezberdinetako 600 lagun bertara hurbiltzea ahalbidetu dute.

5.2 Eragintza Fundazioa

Fundazio hau BBK-k, Bizkaiko Foru Aldundiak eta CEBEK-ek sortua da, eta bere helburua Bizkaian **epe luzerako adimen-gaixotasunak dituzten pertsonen errehabilitazioa, gizarteratzea eta laneratzea** da, beren gaitasunak garatzeari begira bideratutako gizarteratze eta laneratze bakarkako plan baten bidez. 2012an fundazioko zerbitzuak eskaintzen dituen programak 532 lagunek erabili dituzte.

Pertsona bakoitzaren errehabilitazio-planetan antzemandako beharren arabera fundazioak prestakuntza berezia ematen die haien lan-gaitasuna, autonomia eta bizi-kalitatea hobetzeko xedez, baita eguneroko gertakariari aurre egin ahal izateko oinarrizko trebetasunei buruzko ikastaroak ere. 2012an, 299 lagunek parte hartu zuten Deustun (Bilbo) fundazioak duen errehabilitazio-zentroan emandako 25 prestakuntza-ikastaroetan.

Bestalde, fundazioak dituen bost zereginetako zentroetan iaz adimen-gaixotasunak zituzten 103 lagunek lanerako oinarrizko gaitasunak eskuratu zituzten, lan babestuan edo arruntean laneratu aurretik. Lan aurretiko prestakuntza hauei esker iaz 13 lagunek lortu zuten lanpostu egonkor bat, 6k enplegu babestuan eta 7k enpresa arruntetan.

2012an fundazioak Lanbidek homologatutako hiru prestakuntza-ekintza abiatu ditu. Horiei esker 36 lagunek lortu dute Lan-agiria eta lan-merkatuan txertatzeari begirako enpresetan egin dituzte praktikak.

Bestalde, enplegu babestua sustatzeko xedez, fundazioak 1993an sortu zuen **Lavanindu SL Enplegurako Zentro Berezia**, industria-garbitegia. Gaur egun 127 lagunetik gora dago bertan lanean, horietatik 108 desgaitasuna duten pertsonak dira, eta horien artean 62 adimen-gaixotasuna dutenak. Ordaindutako enplegua izateaz gain, behar duten laguntza pertsonal eta soziala jasotzen dute.

Azkenik, Hirugarren Sektoreko erakundeekin eta lan babestuko enpresa batzuekin elkarlanean, fundazioaren erabiltzaile diren eta buruko gaixotasuna duten 42 pertsonari lanpostua mantentzen edo aurkitzen lagundu die fundazioak, horietatik 23 lan arruntean.

Halaber, beste ekitaldi batez, fundazioaren jabetzakoa den eta Argia fundazioak kudeatzen duen Galdameseko Zurimendi egoitzak gaixotasun mental larria duten 20 pertsona (14 gizonezko eta 6 emakumezko) hartu ditu.

5.3 Argia Fundazioa

1990ean hasi zuen bere jarduna Argia Fundazioak, eta gizarte esku-hartzean jarduten du laguntza-jarduerak eta zerbitzuak abian jarriz honako arloetan: Bizkaian **gaixotasun mental kronikoak eta nahaste psikikoak dituztenen prebentzioan, tratamenduan, errehabilitazioan eta gizarteratzean**. 1994tik, Argia Fundazioaren patronatua Trinitarioen Komunitateak, BBK-k eta Bilboko Elizbarrutiak osatzen dute.

Helburu hori lortzeko, fundazioak zenbait programa garatu ditu. 2012an, hain zuzen ere, adimen-gaixotasuna duten 260 pertsona artatu ditu. Zerbitzu horiek ondoko hauek dira:

- ✓ **Eguneko Ospitalea**, Algorta-Getxoko Trinitarioen antzinako eraikinean dagoena. Zerbitzu honek, era malguan, zentroak eskaintzen dituen jarduera terapeutiko eta zereginen inguruko arreta indibidualizatua eskaintzen du. 2012an, guztira 111 pertsonarekin egin du lan, horietatik 6 ospitale-kanpoko kontsultetan.

- ✓ **Babespeko etxebizitzak**, 2012an 129 laguni ostatu eman dien komunitate-baliabide eta euskarri soziala. 24 pisu hauek adimen-gaixotasun larri edo kronikoa izan, baina autonomia maila nahikoa duten lau-sei pazienterentzako bizikidetzak-unitate bezala funtzionatzen dute.
- ✓ **Zurimendi Egoitza** adimen-gaixotasun kronikoa daukaten pertsonentzat harrera-egoitza sustatzen duen beste baliabide bat da. Ekipamendu honen helburu nagusia gaixorik dauden pertsonen gaitasun sozialak sustatzea eta beraien egokitzapen psikosoziala ahalbidetzea da. 2012an 20 lagun artatu dira eskaintzen dituen 18 plazen bidez. Eguneko 24 orduetan gainbegiratze-zerbitzua edukitzeaz gain, bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu: familia eta etxeko arreta eta aisialdiko jarduerak.

5.4 Aspaldiko Fundazioa

"Aspaldiko Etxea" hitzarmena Bilbon sinatu zuten BBK-k, Bilboko Elizbarrutiko Caritasek eta Bizkaiko Foru Aldundiak 1997an. Hitzarmen honen bidez, Aspaldiko Fundazioaren sorrera sustatu zen Aspaldiko Gerontologia Zentroa kudeatzeko. Zentro hau Portugaleteko Kanpazar Gainean dago eta BBKrena da.

Aspaldiko Zentro Gerontologikoak zazpi solairutan banatutako Egoitza dauka. Solairu hauek Egoitza Unitateak (URA) deitzen dira eta guztira 274 plaza daude. URA bakoitzak, egoitza txiki bat bezalakoa dena, gune eta zerbitzu komunak dauzka: harrera, jangela, egongela, guztiontzako komunak, jardueretarako eta bisitetarako gela, erizaintza-gela, arreta medikorako bulegoa, etab.

Bi solairutan unitate psiko-geriatrikoak daude 86 plazarekin, eta bertan adimena larriki edo oso larriki galtzen doazen pertsonak artatzen dira. Halaber, egoitzak aldi baterako Gizarte eta Osasun Egoitza Unitate bat dauka. 27 leku daude gizarte- eta osasun-zaintza intentsiboak behar dituzten eta mendetasun egoeran daudenentzat.



Egoitza Unitateez gain, eraikinaren beheko solairuan, 1.237 m²-tan, Aspaldiko Gerontologia Zentroak bi Eguneko Zentro ditu. Bertan, mendetasun fisiko, psikiko edota soziala duten 56 laguni arreta integrala eskaintzen diete egunez eta baita familiari laguntza ere.

2012an Zentroan eskainitako zerbitzuetan 585 lagun artatu dira.

5.5 Eguneko zentroak

Eguneko Zentroak dependentzia oso larria ez daukaten pertsonentzako baliabideak dira, haien ingurune sozialean eta familiarrean txertatuta jarraitzeko aukera ematen diete eta Egoitzen alternatiba erreala eta eraginkorra dira. Bertan, zainketa pertsonalak eta atentzio integral espezializatua eskaintzen dira, **autonomia pertsonal eta soziala hobetzeari (errehabilitazioa eta mantentzea)** eta erabiltzaileak komunitatean integratzeari begira. Era horretan, erabiltzaileen eta haien senide eta zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen da.

BBK-k Bizkaiko Eguneko Zentroen Sarearen sorkuntzan, mantentzean eta sendotzean parte hartu du, Foru Aldundiarekin eta udal erakunde publikoekin aliantza estrategikoak eginez. Gaur egun, BBK Gizarte Ekintzak 27 Eguneko Zentro sortu eta abian jartzen lagundu du, eta, gainera, bere jabegokoak ziren 11 eraikin laga ditu.

5.6 Bilbao BBK GoodHostel

2012ko apirilaren 2an Bilbao BBK GoodHostelek bere ateak ireki ditu, adimen-desgaitasun eta fisikoa duten pertsonen kudeatutako hiri-ostatua. Bilboko Bolueta auzoko lehengo Iturlan tailerretan dago eta BBKren jabetzakoa da. Instalazio hauek 1967an inauguratu ziren eta orduan adimen-desgaitasuna zuten Bizkaiko pertsonentzako lehen lanbide tailerra izan zen. Lau hamarkada geroago, Bilbao BBK Good Hostelek lekukoa hartu die esku-hartze aitzindari haiei eta **desgaitasuna duten pertsonen kudeatutako Europako lehenengo gazte-aterpetxea** da.

Bilboko hirigunetik 5 minutura baino ez dago, eta Lantegi Batuak-ek kudeatutako BBK Bilbao GoodHostelek gazteei, familiei eta taldeei kalitatezko ostatua eskaintzen die oso prezio onean, **instalazio irisgarriekin**, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokituta eta zerbitzu eskaintza zabalarekin.



5.7 Jabetuz zentroa

BBKren jabetzako Jose M^a Olabarri kaleko lokal batean dagoen Jabetuz Zentroa BBK Gizarte Ekintzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko AFAREN (Bizkaiko Alzheimer gaixotasuna dutenen familiakoen elkarte) arteko lankidetzaproiektu bat da.

Zentroaren jarduera nagusia **Alzheimerre dutenen autonomia sustatzea** da gaixotasunaren hasierako faseetan, portaeraren nahaste larririk ez dutenean, eta baita familia zaintzaileei arreta eskaintzea ere. Helburu horri begira, Zentroak hainbat tailer eskaintzen ditu beraien **autonomia funtzionala** ahalik eta denbora gehienaz mantentzeko asmoarekin: psikoestimulazio kognitiboa, plan terapeutiko intentsiboa, eguneroko plan terapeutikoa eta gaixoei terapiak. Halaber, gaixotasunari buruzko informazio- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen du, eta baita prestakuntza-ikastaroak, laguntza psikologikoa emateko taldeak, arnasketa-programak eta zaintzaileei zuzendutako tailerrak ere.

5.8 Hondartza Denontzat

2004an abian jarri zen Hondartza Denontzat programa mugikortasunarekin lotutako desgaitasunak dituzten pertsonen hondartzaz goza dezaten. BBK Gizarte Ekintzaren, Bidaideak Elkartearen, Heldu Federazioaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Getxo, Plentzia, Zierbena, Ibarrangelu eta Lekeitioko Udalen artean lankidetzan sorturiko proiektua da eta **mugikortasunarekin lotutako desgaitasunak** dituzten pertsonen hondartzetarako irisgarritasuna ahalbidetzea eta gure hondartzez gozaraztea du xede. Aurreko urteetan bezala, BBK-k bere gain hartu ditu arkitektura-mugak ezabatzeak sortzen dituen kostuak, eta baita bainua ahalbidetzeko behar diren azpiegiturak eta baliabideak ere.



2012an bainuaren laguntza-programa Ereaga, Plentzia, La Arena, Laida eta Isuntza hondartzetan garatu da, eta bereziki zuzendu zaie Bizkaian mugikortasun arazo larriak dituzten 3.000 laguni. Programaren bitartez, kualifikatutako begirale-taldea jarri da beraientzat, eta baita hondartzatik eta uretatik ibiltzeko beren-beregi diseinatutako zenbait **laguntza-teknika** ere: uretako gurpil-aulkiak, makulu urlehortarrak... hori guztia egokitutako garraio-zerbitzu bereziarekin osatuta.

5.9 Dokudea zentroa

2011n Lantegi Batuak-ek BBK Gizarte Ekintzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Getxoko Udalarekin elkarlanean abian jarri zuen Dokudea proiektua, Dokumentu Kudeaketan Bikaintasun Zentroa, **adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea** sustatzeko xedez.



Getxon dago, 4.600 m²-ko eraikin batean, eta unitate berean batzen ditu aholkularitza, digitalizazio, dokumentuen kudeaketa eta suntsitze konfidentzialeko zerbitzuak. 40 lanpostu sortu dira, horietatik 30 desgaitasuna duten pertsonentzat.

Dokudea zentroak teknologia berrien bidez enpresa eta erakundeei baliozko irtenbideak ematen dizkie beraien dokumentuak modu operatibo, seguru, legal eta konfidentzian kudeatzeko, eta bide batez, desgaituen gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzen du.

5.10 Futubide zentroa

BBK-k adimen-desgaitasuna duten pertsonetikiko eta haien senideekiko duen konpromisoaren barruan, eremu honetan lan egiten duten beste gizarte-entitateekin lankidetzan, Futubide, Gorabide Babes Fundazioari laga dio Bilboko Miribilla auzoan duen higiezin bat, bere egoitza soziala finkatzeko eta babesik gabe dauden eta desgaitasun psikikoa duten pertsoneri eskaintzen dizkien zerbitzu guztiak batu ahal izateko.

Futubide, Gorabide Babes Fundazioak babesa, kuratela edota defentsa judiziala ematen die desgaitasun psikikoa duten eta beraien burua gobernatzeko gai ez diren legalki desgaitutako pertsoneri.

2012an, higiezina lagatzeaz gain, BBK Gizarte Ekintzak Fundazioarekin jardun du lanean lokala egokitzen eta ekipatzen.

5.11 EM Labs

2012an Eugenia Epaltza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioak BBK Gizarte Ekintzarekin lankidetzan *"EM Labs virtual games"* programa jarri du abian, hau da, *serious games*-en aplikatutako teknologia berrien bidez **Esklerosi Anizkoitza duten pertsonen errehabilitazio birtualaren** Europako lehen gunea.

Multimedia teknologietan oinarrituta, EM Labsek errehabilitazio birtualeko sistema bat eskaintzen du 3D inguruneak eta Kinect teknologiak uztartzen dituena. Mugimendua harrapatzearekin batera, azterketa, grafiko eta txosten zehatzen modulu bat du, Esklerosi Anizkoitza moduko gaixotasun neurodegeneratiboek eragindako pertsonen aurrerapenen jarraipena ahalbidetzen duena.

5.12 Apnabi Bizimodu independentea

2012an APNABIk, Bizkaiko autismoa eta beste autismoaren espektroaren nahasteak dituztenen gurasoen elkarteak, BBK Gizarte Ekintzaren laguntzarekin *"Bizimodu independentea etxean"* programa jarri du abian. **Teknologia berrien erabileraren bidez autismoa dutenen autonomia** sustatzeko ekimen aitzindaria da, eta bizimodu erdi-independentea egiten dute Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartutako etxe batean.

Proiektuan parte hartzen duten pertsonen laguntza-beharren diagnostiko pertsonalizatua egin ondoren, norbere autonomia sustatzeko irtenbide teknologiko pertsonalizatuak identifikatzen dituen *living-lab* metodologiatik abiatuta, Erandion dagoen etxebizitza batean baliabide domotikoak ezarri dira eta aukera ematen dio espektro autista duen lagun talde bati bizimodu erdi-independentea egiteko. Etxean sartu eta irteteko atzamar-aztarnen bidezko sistema bat du, tutoretza bideoen biltegi eta komunikaziorako QR kodeak, komunikazio-aplikazioak (bideo-konferentziak, txata, blogak eta abar) eta tablet euskarriak. Etxebizitza hau erabiltzaileen beharretara guztiz egokitutako gune bat da, komunitatean guztiz uztartuta.

5.13 Barriztu programa

Caritasek kudeatu eta BBK-k zati bat finantzatzen duen Barriztu proiektuak mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonak bizi diren **etxebizitzak egokitzeko** egiten du lan, normalki arkitektura-oztopoak kenduz. Artatutako pertsonen profila bere jabetzako etxean bakarrik bizi den 74 urteko emakumezkoarena da, baliabide ekonomiko urriak dituen eta eguneroko bizitzako jarduerak egitea zailtzen dion nolabaiteko mendekotasun maila duena. 2012an 23 etxebizitza berri egokitu dira.

5.14. Beste esku-hartze batzuk

BBK-ko Gizarte Ekintzaren Laguntza Programak pertsona nagusiei zuzentzen dizkie bere laguntza gehienak eta baliabide gehien behar dituen ekiteko ildoetako bat, hain zuzen, mendekotasunaren arloan ekimenak finantzatzera bideratzen dena da. 2001ean lehen edizioa egin zenetik, programa honen bidez desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako 1.677 proiektu finantzatu ditu BBK-k. Guztira 31.468.807 euro eman ditu, gutxi gorabehera BBK-k 2001-2011 artean laguntza sozialetara bideratutako 64 milioi eurotik %49,2.

Alor honetan 2012ko proiektu aipagarrienetako batzuk honako hauek izan dira:

✓ **AUZOLAN SENIOR - BBK INNOVA SAREA**

Orueren Pertsonen Garapenerako ITG Taldearekin elkarlanean egindako I+G+B proiektua da, IKTen bidez landa-eremuetan bizi diren adineko pertsonak atentzio integrala jasotzeko. Proiektu pilotu hau 2007an jarri zen abian Zornotzan, eta **etxez etxeko laguntza integralaren** sistema aurreratu bat ezartzea ekarri du, "denontzako diseinua" deitutako irizpideen bidez, telekomunikazio-aplikazio eta -zerbitzuekin lagunduz. Azken helburua, banda zabaleko teknologien bidez landa-eremuetan bizi diren pertsonen urruneko asistentzia integrala eskaintzea da, eta baita bere jardueraren eremuaren barnean kokatutako zentro asistentzialetatik zerbitzua eskaintzea ere.

Urte hauetan zehar Zornotza inguruko baserrietan bizi diren adineko 37 pertsonari eskaini zaie arreta.

2012an jarduera-eremua Arratia eta Durangaldeko eskualde mugakideetara zabaltzeko proiektua garatu da. Horren bidez, honakoa frogatu nahi da: kostuei dagokionez adinekoei zuzendutako etxez-etxeko laguntza-eredua eraginkorra dela, insituzionalizazio-arriskua murrizten duela eta adineko menpeko pertsonak eta bere zaintzaile nagusiak daukaten bizi-kalitatea hobetzen duela. Proiektu honetan Dima, Igorre, Ubide, Areatza, Lemoa, Zeanuri eta Arteako 60 pertsonak parte hartu dute, eta horien artean gehienak bakarrik bizi diren emakume alargunak dira, Arratiako Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratuak. Une honetan 30 etxetan "Auzolan Plataforma" izeneko erreminta teknologikoa ezartzen ari da.

✓ **BUSTI ZAITEZ ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ALDE!**

2012ko uztailean XV. Busti Zaitetz! programa ospatu zen, Eugenia Epaltza Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioarekin elkarlanean egindako gizarte-sentsibilizazio programa. **Esklerosi anizkoitza daukaten pertsonenganako elkartasuna** adierazteko ekimena da eta Bizkaia eta Gipuzkoako hondartza desberdinetan eta Arabako igerileku desberdinetan ospatzen da urtero uztailean. Honen helburua, nagusiki pertsona gazte eta emakumeei eragiten dien gaixotasunaz kontzientziatu eta sentsibilizatzea da, eta baita Errehabilitazio Integralerako Zentroak sortzeko fondoak lortzea ere.

✓ **BIZITZAREN AMAIERAN ZAINDU**

Duela hamarkada bat Santurtziko San Joan Jainkoarenaren Ospitalearekin elkarlanean **Zainketa Aringarrietako Unitatea** eta **Etxez-etxeko Zainketa Aringarrien Zerbitzua** abiatu ziren, eta orduz geroztik BBK-k Ospitalearekin lankidetzan dihardu, baita iragan 2012an ere.

2002a geroztik, BBK Gizarte Ekintzak, San Joan Jainkoarenaren Ospitalearen alde bat berritzea, ekipatzea eta egokitzea diruz lagundu du, Zainketa Aringarrietako Unitatea eta Etxez-etxeko Zainketa Aringarrien Zerbitzua abian jartzeko. Azken hau Ezkerraldeko 150 paziente eta 150 zaintzaile hartzeko pentsatua dago, hain zuzen, gaixo terminalek denbora gehien igaro beharko luketen lekua etxea delako uste osoa dagoelako. Programa honek **gaixoaren bizi-kalitatea hobetzea** bilatzen du, atentzio integral eta jarraituaren bidez, eta Lehen Mailako Atentzioarekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin eta Santurtziko San Joan Jainkoarenaren Ospitalearekin berarekin koordinazioan.

6. Haur eta gazteen aldeko programak

Kolektibo hauekin BBK Gizarte Ekintzak daukan esku-hartzeak erakundearen beraren hastapenetan dauka oinarria, hain zuzen, orain dela ehun urte baino gehiago. 1925ean bertan, Bilboko Udal Aurrezki Kutxak, gaur egun BBK denak, Sukarrietan instalazio batzuk ipini zituen "*umeei laguntza emateko programa bat ezarri, osasun-arazoak zituzten Bizkaiko eskola desberdinetako umeei ingurune paregabearen egonaldiak egin, eta, horrela, osatzen lagundu diezaieten*". Bere garaian, zentroa Europako herrialde batzuetan garatzen hasi ziren zerbitzu aurreratuenekin parekatu zen, izan ere, eskola-higienea, pedagogia, haur-medikuntza eta ingurumenaren ulermenarekin erlazionatutako gaietan aitzindaria izan zen.

Esku-hartze horien oinordeko, BBK-ko Gizarte Ekintzak haur eta gazteei zuzendutako programa eta zerbitzu sorta garrantzitsua edukitzen jarraitzen du, eta maila desberdinetan banatzen dira, lan eta familia bizitza bateragarri egiten duten Haur Eskolen Saretik hasi eta abangoardiako hezkuntza-programetaraino, **hezkuntza-sistema formalaren osagarriak direnak**.



Alor honetan garatzen diren jarduera guztiek helburu bera dute: familiei kalitatezko atentzia eskaintzea, solidaritatea, ingurugiroarekiko errespetua, anistasuna eta bizikidetasuna bezalako **baloreen heziketa** sustatzea.

Balio erantsia daukaten zerbitzuak dira, izan ere, lana eta familia bateragarria izateko adiskidetzarako mesedegarri izateaz gain, familia eta eskola ingurunean lortutako **gaitasun sozial osagarriak garatzen** laguntzen du. Programa hauek, era berean, prestakuntza alorrean zerbitzu publiko eta pribatua aberasten dute, besteak beste, sormen eta garapen iraunkorrari lotutako gaitasunak barneratuz. Hezkuntza arloko instituzio publiko eta pribatuekin dagoen itun-sare trinkoak, BBKren zentroetatik egiten den eskaintza beste instantzia batzuetatik egiten denarekiko koherentea eta osagarria dela bermatzen du.

6.1. Haur Eskolen sarea



BBKren Haur Eskolak Bizkaian dagoeneko ongi errotutako hezkuntza eta pedagogia baliabidea da. Haur txikiak dituzten familiei **lana eta familia bizitza** bateratzen laguntzeko asmoz sortu ziren.

0-2 urteko umeak hartzen ditu ordutegi zabalean, eta arreta berezia eskaintzen dio arlo pedagogikoari, berrogei urtetik gorako ibilbidearekin, Bizkaia mailan haur-hezkuntzaren aitzindaritzan kokatzen da haur-eskolen zerbitzua.

Azken urteotan, eboluzionatu egin du ekimen pribatuei eta erakunde publikoei esker, eta batez ere, Eusko Jaurlaritzako Haurreskolen Patzuergoaren bidez. Hori dela eta, BBKren eskaintza egokitzapen-prozesu batean murgilduta dago. Momentu honetan erabat elebidunak diren 13 haur-eskola dauzkagu Barakaldon, Basaurin, Bilbon, Getxon, Santurtzin eta Sestaon. Hauek BBK Gizarte Ekintzak kudeatzen ditu zuzenean eta beste erakunde batzuek kudeatzen dituzten beste 2 eskola ere badaude. 2012-2013 ikasturtearen hasieran BBKren sareari dagozkion eskoletan matrikulatutako haurren kopurua 632ra heldu da.

6.2. Hezkuntza-sistema laguntzeko programak

Ikasturtean zehar, Bizkaiko **hezkuntza-sistemari laguntzeko ekipamendu** gisa, BBK Gizarte Ekintzak bi zentro mantentzen ditu (BBK Sukarrieta eta BBK Briñas).

BBK-k eskaintzen dituen hezkuntza-programak egonaldi erregimenean garatzen dira, eta hauetan, gainera, eduki nagusiak osatzen dituen proiektu zentralaz gain, jardura osagarri eta ludiko batzuk ere badaude, egonaldia hobetu eta osatzen dutenak. Guzti hori errespetua, parte-hartzea, lankidetzeta eta erantzukizuna bezalako balioak sustatzen diren bizikidetzeta-ingurune batean garatzen da.

Programa guzti hauek, dagoeneko, Bizkaiko hezkuntza-zentroen ohiko agendaren parte dira, eta edukiak agente pedagogikoekin elkarlanean antolatzen dira. Barne-hartzen dituen gaiak **ingurumen-hezkuntza** eta, iraunkortasunerako, **tratu txarren prebentzioa, sormena eta solidaritaterako hezkuntza** dira.

Ingurumen Hezkuntzarako Zentroa (Sukarrietako BBK Zentroa). Ingurumen-hezkuntzarako zentroa Bizkaiko eskolei zuzenduta dago eta asteko egonaldien bidez funtzionatzen du. Jarduera hau 1982an jarri zen abian Eusko Jaurlaritzari esker, eta bere helburua, ingurumen, komunikazio eta bizikidetzaren eremuetara hurbiltzeko baliabide egonkorra eskaintzea da. Guzti hori hiri-kultura, **ingurunearekiko** ezagutza, gozamina eta **errespetuarekin** bateragarri izateko bokaziotik abiatzen da, eta baita **garapen iraunkorrekiko konpromisoa** bilatzen ere.

Programa ikasle eta irakasleek partekatutako espazioa izateko pentsatua dago, eta gai desberdinen arabera antolatzen da. Hauen bidez, **ekosistemen oreka, birziklapenaren balioa** eta berrerabilera, baliabide naturalen erabilera egokia... bezalako gaiekin erlazionaturako alderdiak lantzen dira.



Jarduera akademikoak tailer eta ekintza ludiko eta animaziozkoekin osatzen dira.

Aldi berean, **Asteburuak Sukarrietan (Sukarrietako BBK Zentroa)** programa garatzen da bi eguneko egonaldien bidez, eta bertan Urdaibaiko ingurune naturala (itsasoa eta lurra) ezagutzeko ekimenak gauzatzen dira. Zentrotik bertatik ere, baserri-eskolara bisitak programatzen dituzte. Egonaldian, ikasle-taldeek **jasangarritasunaren** alderdi desberdinak eta **Urdaibai ingurune naturalaren dimentsio soziokulturala eta historikoa** ere gertutik ezagutzen dituzte. Antolatzen diren ekintzen artean Bermeora txangoak egiten dira, itsasoaren kulturaren sakontzeko asmoz itsas portuaren errealtatera hurbilduz, nabigatzeko moduak ezagutzuz, Arrantzalearen Museoa bisitatuz etab.



Era berean, Izaro uhartera bisitaldia egiten da itsasontziz, sasoiaren arabera zetazeoak begiztatuz. Nekazaritza eta abeltzaintza arloetara hurbiltzeko, bertako espezieak hazten dituen Zentroaren baratza eta ukuiluak bisitatu dira.

Tratu ona Albiste da (Sukarrietako BBK Zentroa). 2010ean ezarritako programa da, Gizarte Ekintzaren lan-ildo guztietan zeharka sartutako genero-politiken emaitza bezala. Prestakuntza ikastaro honek 14 urte arteko neska eta mutilen generoen arteko bortxazko jarrerak saihestu eta ez onartzeko gaitasunak suspertu nahi ditu, emakumeen eta gizonen artean zuzentasuna, errespetua eta **aukeren berdintasuna** bultzatuz. Izenak berak adierazten duen bezala, komunikabideetako informazio eta iragarki-mezuetan islatzen diren balio diskriminatzaileak identifikatu eta aitortzetik abiatzen da programa.

Ikastaroetan parte hartzen duten taldeak 25-30 aurrenerabe ingurukoak izaten dira, eta jarduera ludiko eta bizikidetzajarduerak bestelako gaien inguruko lan eta hausnarketa momentuekin uztartzen dituzte: komunikabideetan agertzen diren balioak, hizkuntza eta irudien erabilera sexista, gizon-emakumeen edertasun-ereduak eta hauen irudia publizitatean.



Zinema Astea BBKn (Briñaseko BBK Zentroa). Hezkuntza-programen barnean eta ikasturtean zehar, **ikus-entzunezko komunikazio tailerra** egiten da, Bizkaiko eskoletako DBHko lehen ziklotara zuzenduta (12-13 urte bitartekoak). Gaztetxo hauek, astebeteko egonaldi hauen bidez, ikus-entzunezko produktu bat sortzeko aukera izaten dute.

Jarduera nagusia laburmetrai bat egitean datza eta ideia originala ikasleena beraiena izan ohi da. Ikasleek laburmetrai horren sorkuntzari dagozkion eginbehar guztiak garatzen dituzte (kamara, aktoreak, gidoilariak, zuzendaritza, soinua, argiztapena, script) eta egonaldia bestelako jarduerekin osatzen da; hala nola, zinerako makillaje-tailerra, kamiseta tematikoak eta jarduera ludikoak.



Nerabeek hedabideen erabilaren eta irismenaren inguruan jarrera kritikoa lortzea helburu duten tailerrek eta ekintzek osatzen dute programa.

Proiektuaren garapenerako, ikus-entzunezkoetan aditua den taldea eta jarduera osagarriak egiteko langileak dauzka BBK-k.

Herritartasuna, Solidaritatea eta Lankidetzak (Briñaseko BBK Zentroa).

2011n zazpi urte bete dituen proiektu honen bidez, ikuspegi integral batetik gazteentzako **balioetan oinarritutako hezkuntza** landu nahi da, eta, horrela, **kontzientzia sozialerako** beharrezkoak diren gaitasunak sortu. Programak hiru gai-multzo dauzka: **Afrikatik bidaia** (bizitza herririka batean eta iheslarien esparru batean); **Latinoamerika eta makilak** (pertsonek bizi-baldintzak, bereziki emakumeenak, txirotutako eremuetan); eta **Beste mundu bat posible da** (bestelako herritartasun unibertsal bat sortuz).

Programaren bitartez ikasleek bizi duten errealitatea beste errealitate konplexuagoetatik abiatuz aztertzeko aukera izango dute, baita egunen batean protagonista izango diren munduan proposamen konprometituek **interpretazio kritikoz** egin eta bereganatzeko ere. Ikerketa sozialaren oinarritzako parametroetara hurbilduz, pertsona guztientzat **gizarte-antolakuntza justuagoa eta duinagoa** helburu duten ekintzak eta proposamenak sustatzeko, ikasleek gogoeta egin dezaten bilatzen da. Horrez gain, esperientzia honek **bidezko merkataritzara** eta **kontsumo arduratsura** ere hurbiltzen ditu gazteak.

Programan parte hartuz, ohikoetatik desberdinak diren antolaketa eta gizarte-harreman ereduak ezagutzen eta esperimendatzen dira. Horrela, berdintasuna, dibertsitatea, parte-hartzea, elkar-erantzukizuna, justizia eta zuzentasuna bezalako **balioetan oinarritutako hezkuntza** sustatzen da, ikasle parte-hartzaileen garapen pertsonala eta soziala hobetzea helburu izanik.



Barneratutako ezagutzak munduaren ikuspegi berria lortzen lagundu behar du, besteak beste, **aniztasunari errespetua**, dibertsitatea eta herri bakoitzaren giza- eta kulturaondarearen gaineko ikuspegia eraikiz, eta ulertuz hauek direla bake eta bizikidetzarako oinarritzko balioak.

Hezkuntza Programen erabiltzaileak

	IKASLEAK	IRAKASLEAK	ZENTROAK
Ingurumen Hezkuntzarako Zentroa	3.121	201	88
Asteburuak Sukarrietan	1.544	35	49
Tratu ona Albiste da	433	38	19
Eguneko bisitaldiak (ikasleak eta nagusiak)	531	-	8
Zinema Astea BBKn	1.835	126	42
Herritartasuna, Solidaritatea eta Lankidetzza	1.356	91	35
GUZTIRA	8.820	491	241

6.3. Haur eta gazteentzako udalekuak

Udalekuak bizkaitarren artean estaldura-maila altuenetakoa daukaten programak dira. Hauek daukaten ibilbide luzeak batetik -joan den mendeko 60. hamarkadan sortu zen-, eta urtero bertan parte hartzen duten neska-mutil kopuru altuak bestetik (3.000 inguru iragan 2012an), BBK Gizarte Ekintzaren zerbitzu ezagunenetakoa izatea eragin du.

Udako egonaldiak ekainaren azken astean, uztailan eta abuztuan garatzen dira, eta 7-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta daude. Zerbitzu honen eboluzioa, **familia-bateragarritasuna** lortzeko eta **aisialdi aberasgarri eta hezigarriaren** oinarri gisa, gizarte-heziketako esku-hartzea beharrian sozial berrietara apurka-apurka egokitze adibide ona da. Nahiz eta hasiera batean BBK-ko egoitzak baliabiderik gabeko eta osasun-arazoak zituzten haurrak laguntzeko zentro bezala erabili, gaur egun helburu erabat **pedagogikoa** daukate, eta bizikidetzan oinarritutako aisialdia eta iraunkortasunerako hezkuntza uztartzen ditu.

Dagoen eskariari aurre egiteko, 2011n berriro ere, aste beteko txandak ezarri dira. Egonaldien antolaketa honek instalakuntzak ia erabat beteta egotea ekarri du, Briñasen ospatu diren azken txandak salbu, parte-hartze gutxiago izan dute eta.



2012 urtean, berritasun modura, Gipuzkoa eta Arabako eta Andaluziako gaztetxo-talde batzuei zabaldu zaie eskaria. Era berean, Bizkaiko 113 gaztetxoek guztira parte hartu dute

Larraungo aran nafarrean kokatutako Arotz-Eneako ingurumen-eskolan Kutxa Fundazioak antolatzen dituen udalekuetan.

Beste alde batetik, orain urte batzuetatik hona, gurasoek egonaldiaren jarraipena egin ahal dute egunez egun, helburu horretarako BBKren webgunean ipini den blogaren bidez. Horrez gain, Egonaldiaren azken egunean eta seme-alabak jasotzera joateko bidaia aprobetxatuz, euren seme-alabek gidaturik instalazioak bisitatzeko aukera izan dute gurasoek.

Udalekuen Programen erabiltzaileak



Sukarrieta (Bizkaia)	1.356
Briñas (Errioxa)	1.428
Arotz Enea (Gipuzkoa)	113
GUZTIRA	2.897

6.4. Izenaduba Basoa

Izenaduba Basoa Bizkaiko baserririk zaharrenean, Landetxo Baserrian (1510) dago eta **mitologiak diharduen parke tematikoa** da, BBK-k sustatu eta diruz laguntzen duena. Baserria guztiz eraberritua izan da, eta 6.000 m²ko azaleran izaera didaktikoa duten programa eta ekintzak barne hartzen ditu, **euskal kulturaren** inguruan interesa pizteko helburua duten hezkuntza-ereduak jarraitzen dituztenak.

30-35 lagunekoa taldeetan antolatzen dira langile espezializatuen gidaritzapean egiten diren bisita didaktikoak. 3D simulagailu, ukitzeko pantaila eta pertsonaia bizidunekin Euskal Herriko natura eta ohiturak erakusten zaizkie haurrei.



2012an 36.000 lagun baino gehiago hurbildu dira instalazioetara, eta 2007ko abenduan zabaldu zenetik 160.000 bisitari jaso ditu guztira. Bisita horien %35 ikastetxe eta elkarteetatik datoz, eta gainerako %65a partikularretatik eta familietatik (22.000 bisita Gabonetan).

6.5. Beste jarduera batzuk

2012an, BBK-k txikienei zuzendutako jarduera mordoia sustatzen jarraitu du, besteak beste, **balioetan oinarritutako hezkuntza, genero-berdintasuna eta euskararen erabilera**. Esku-hartze aipagarrienen artean 250.000 bisitari jaso dituzten Umeen Gabonetako Parkeetan garatzen diren programak daude, Euskal Eskola Publikoarekin egindako lankidetzak-ekimenez gain. BBK Gizarte Ekintza alor honetako beste programa batzuez ere arduratzen da: Ibilaldia, mendira kanpaldi eta txangoak, Txikigunearen bidez Bilboko Aste Nagusian esku-hartzea, Athletic familian BBK esperientzia, Arrain Azoka eta Bizkaiko Dantzari Eguna.

7. Nagusien aldeko programak

Pertsona nagusiekiko esku-hartzea BBK Gizarte Ekintzaren jardueren barruan ibilbide luzea duen jarduera-eremua da. Etengabeko prestakuntza indartzea edo gizarte- eta kultura-jarduera edo aisialdi aktiboko ekintza ezberdinetan nagusien parte-hartzea sustatzea, BBK-k talde honen eskaerei erantzuteko abian dituen era desberdinen adibideak dira.

Gaur egun bizi-itxaropenak eta aldaketa ekonomikoek eta soziokulturalek gero eta handiagoa den biztanleriaren talde baten aurrean jartzen gaituzte, nagusien taldea hain zuzen ere, bizi-kalitate handiagoa duena, eta oso heterogeneoa dena eskaera eta beharrei dagokienez.

Eskaera berriei egokitutako eskaintzarik egon ezean, eta bizi dugun krisi-egoerak talde honi eragin diezazkiokeen ondorioen balorazio zehatzik egin gabe, gero eta zabalagoa den herritarren sektore baten ekarpenak galtzeko arriskua dugu, bizitza osoan zehar erakutsitako gaitasun eta eskumenak ahaztuko lituzkeen gizarte-eredu bat sustatuz.

Gure erantzunak, talde honentzat eta testuinguru honetan, **bizitza-ohitura osasungarriak izatea**, autonomia, auto-estimua eta aisialdiaz gozatzea bultzatzea du helburu, **banakakoen gaitasunen garapena** erraztuz eta **pertsonen arteko harremanak eta parte-hartze soziala** sustatuz.

7.1. Nagusientzako Zentroak

Nagusien Zentroen sarea XX. hamarkadaren erdialdeko eztanda demografikoan zerikusi nabarmena izan zuen taldeari erantzun integratzaile bat eskaintzeko asmoarekin sortu zen Bizkaian 60 eta 80. hamarkadan. Zentroak bizi-esperientziak eta ezagutzak trukatzeko eta sozializatze topagune modura pentsatu ziren.

Hurbileko baliabide horiek trantsizio demokratikoaren aurreko eta ondorengo hamarkadaren testuinguru berezia aintzat hartuz diseinatu ziren. Horregatik azken urteotan egokitzapen-prozesuan daude, Bizkaiko Lurralde Historikoan mendekotasunik ez duten nagusientzako zerbitzu-sare zabalean koherentziaz eta egokitasunez integratzeko. Ongizate Estatuaren garapenarekin, 90. hamarkadatik aurrea bereziki, udal administrazioek komunitate-zerbitzuak ematea eta gizarte-zerbitzuen kudeaketan nagusiek osatzen dituzten gizarte-erakundeei zama handiagoa esleitzearen eskutik, zentro hauen esku-hartze eremuan aldaketak egiten ari dira, azken helburua eraginkortasun handiagoa lortzea izanik.

BBK-k nagusientzako 54 zentro ditu. Horietatik 18 bere baliabideekin zuzenean kudeatzen ditu, eta gainerako 36ak erakunde publikoek edo irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek kudeatzen dituzte.

7.2. Jarduera soziokulturalen programa

2012ko ekitaldian pertsona nagusien eskura jarri dugun jarduera-programa zahartze aktiboaren hiru ardatzen oinarrietan finkatzen da: **aisialdia balio sozial eta aisiako balio gisa; kultura eta prestakuntza, denbora aprobetxatzeko eta gaitasun berriak gureganatzeko ordezkoko aukera gisa; eta osasuna, ohitura osasungarriak gureganatzeko eta norberaren autonomia sustatzeko bide gisa.**



2012an 9.425 lagunek erabili duten programa BBKren Nagusien Zentroen sarearen bitartez eta Bizkaiko nagusien zentro eta elkarteen sistema zabalari esker garatzen da.

Nagusientzako lekuak eta jarduerak soziokulturalak

Programak	Jarduerak	Lekuak
Ongizatea eta hazkunde pertsonala	269	4.812
Kultura	88	1.012
Teknologia Berriak	51	461
Hizkuntzak	91	964
Musika	13	116
Arte Adierazpena	240	3.138
Gastronomia	9	111
Irteerak eta bidaiak	50	1.808
Aisialdia	2	1.648
GUZTIRA	813	14.070

Eskaintza berritzea beharrezkoa izan da erabiltzaileen premia berriei egokitzeko. Horri esker, nagusien behar fisikoak eta mentalak modu integralean lantzeko bi multzo handi osatu dira 2012an: “*zaindu zure gorputza*” eta “*zaindu zure burua*”. Bietan diziplinarteko teknikak erabiltzen dira **pertsonaren garapen orokorra** laguntzeko, psikomotrizitatea eta elementu kognitibo hutsak abiapuntutzat hartuz. Parte hartzaileek eguneroko egoeretan arin erabili ahal izateko moduko baliabideak eta trebetasunak eskuratzea da programen helburua.

Aurreko urteetan ezarri diren programez gain, esate baterako hizkuntzak ikasteko ikastaroak (frantsesa, euskara eta ingelesa) eta musika-ikastaroak (eskusoinua, musika-entzunaldia, gitarra, pianoa, txalaparta eta panderoa), nagusiak gero eta hedapen handiagoa duten teknologia berrietara hurbiltzeko asmoz informatika eta internet ikastaroen eskaintza indartu egin da.

Aurreko urteetan bezala, programazioaren ikuspegiak nabarmen praktikoa izaten jarraitzen du, eta parte hartzen dutenek eguneroko egoeren aurrean naturaltasunez eta autonomiaz moldatzeko **baliabideak eta trebetasunak** sortzen dituzte.

7.3. [EHUko Esperientzia Gelak](#)

Esperientzia Gelak BBKren eta EHU-ren arteko etengabeko elkarlaneko eremu modura sortu ziren. 55 urtetik gorako nagusien **goi-mailako prestakuntzara iristeko azpiegitura akademikoa** eskaintzea izan da helburua. Geletan parte hartzeko ez da alde aurreko titulurik eskatzen eta ikasketak amaitzen dituzten ikasleek Giza Zientzietako Unibertsitate Titulua lortzen dute, Euskal Herriko Unibertsitatearen berezko titulua.

Bilboko Zazpi Kaleetan, Espainiako Bankuaren ohiko egoitzan burutzen da programa, gaur egun BBKren jabetzakoa den eraikinean.

Bestalde, unibertsitate-titulu hori amaitzen zutenen eskariari erantzunez, titulua eskaintza berri batekin osatzea erabaki zen duela lau urte: Nagusientzako Unibertsitate Ikastaroak.



Horiek urtero ospatzen diren bi ikasturte akademikoz osatzen dira. Gehienez lau irakasgai egin daitezke honako gai hau ardatz hartuz: Modernitatea. Beraz, diseinu zabala dute, non ikasleek euren behar eta prestasunaren arabera bete nahi dituzten irakasgai kopurua aukera dezaketen.

7.4. Nagusientzako egoitzak

Ibarrekolandako **BBK Sarriko Zentro** berrian kokatutako nagusientzako egoitzaren lanak 2012ko azken sei hilabetean amaitu ziren, altzariz hornitzea eta instalazioak ekipatzea barne.

Bakearen Erregina Egoitzaren aurreko erabiltzaileekin hartutako konpromisoa betez, horiek guztiak eta euren familiek egoitza berriaren instalazioak bisitatu zituzten maiatzean. Bien bitartean, Bizkaian nagusiei egoitza-zerbitzuak eskaintzen dizkieten enpresarik garrantzitsuenek lizitazio prozesu batean parte hartu zuten ekainean, emaitza modura Vitalitas Beurko, SL enpresa esleipendun gertatuz.

2013ko urtarrilean Vitalitas Sarriko Egoitzara lekualdatuko ziren pertsonen multzoa zehaztuta, 2013ko lehen egunetan egoitza martxan ipini zen.

20.000 m²ko azalera eta guztira 25,5 milioi euroko kostuarekin, BBK Sarriko Zentroak kalitate handiko azpiegitura dauka, nagusien egoitza modura erabilia izateko abangoardiako ekipamenduz hornitua. Instalazioen kalitate mailaren erakusle, eta banaketaren ikuspegitik, Zentroak ez ditu logelak, apartamenduak baizik (logela, egongela, komuna eta sukaldea), hain zuzen ere 46 m² edo 50 m²-ko 140 apartamentu eta 26m² edo 30 m²-ko 22. Gainera, eraikinak beste 6 apartamentu ditu, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonentzat egokituak, eremu komunak, egongelak, eraikinera sarbide zuzeneko sotoko aparkalekuak eta bista zabaleko terrazak.

Bestalde, BBK Sarriko Zentroa **ingurumen-inraunkortasunaren** arloan abangoardiako eraikina da, bere instalazioek LEED (*Leadership in Energy and Environmental Design*) ziurtagiria lortu duten neurrian. Ziurtagiriak eraikinek euren bizitza-zikloan izango duten ingurumen-portaera ebaluatzen du. Horretarako, beste aldagai batzuen artean, diseinu-arau objektiboak eta irizpide kuantifikagarriak erabiliz, energiaren eta uraren erabilera eraginkorra, materialen erabilera zuzena, eraikitze-prozesuan sortutako hondarren kudeaketa eta gelen barruko giroaren kalitatea neurtzen dira.

7.5. Beste jarduera batzuk

Bizkaiko eragile publiko eta pribatu ezberdinekin garatzen diren lankidetzak estrategikoen bidez, 2012an **zahartze aktiboarekin** eta **nagusien parte-hartze sozialarekin** zerikusia duten programa batzuetan parte hartu dugu. Horren harira, Nagusiak eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan jardun da Bilbon egindako belaunaldien arteko ibilaldietan.

Gainera, 2012an BBK-k Barakaldoko Bilbao Exhibition Centerren (BEC) egindako Nagusi 2012 Azoka babestu eta bertan parte hartu du. Ekimen honek iraun zituen hiru egunetan, BBK-k stand bat izan zuen, eta bertan hainbat ekintza egin ziren aisialdiarekin eta zahartze aktiboarekin erlazioan. Edizio honetako berrikuntza BBK-k aurkeztutako programa berritzailea izan da. Programa horren bidez, urrun dauden bi munduren arteko, hau da, gazteen eta nagusien artean, ko-ikaskuntza sustatu nahi da; eta, sare sozialen



bitartez, azken horientzako tresna izan nahi du, harreman sozialak egin edo berreskuratzeko.

8. Hirugarren Sektorea laguntzea eta sendotzea

BBKn jabetzen gara gurekin proiektuak egiten dituzten gizarte-entitate eta erakundeekin ezarritako harremanen kalitatea zuzenean dagoela lotuta egiten ditugun proiektuen **eraginkortasun eta errentagarritasun sozialarekin**. Sarean eta beste eragile batzuekin lankidetzan lan egitea gure ereduaren indargune bat da eta arlo horretan gure Gizarte Ekintzak esperientzia handia du, sustatu eta estimulatu behar dena. Datozen urteetako erronka estrategiko garrantzitsuenetako bat harreman hau sakontzen jarraitzea da, errealitate sozial berrien aurrean egokituz eta herritarren eta Hirugarren Sektorearen aurrean bere balioa azpimarratuz.

Testuinguru honetan nabarmendu behar da harreman estrategikoen marko honi esker, Gizarte Ekintzak emandako laguntzak daukan eragin biderkatzailea. Hirugarren Sektorearekiko konfiantzak eta elkarren arteko ezagutzak urte hauetan BBK Solidarioa, Bolunta, Indartu edo Bidera moduko programa eta ekimenak abian jartzea ahalbidetu du. Gizarte-entitateen ulermen- eta inplikazio-maila altua kontuan izanik soilik uler daiteke azken urteotan garatutako prozesua.

Gizarte zibilaren bilakaerak eta **parte-hartze sozialerako bide berriak** sortzeak gizarte-beharrei erantzuteko sortzen diren ereduak etengabe berritzea eskatzen dute. Testuinguru horretan Hirugarren Sektorea funtsezko aktorea da gizarte-ekintzaren formula antolatu gisa. BBKren esperientziak adierazten digu aberastasun ikaragarria, tradizioa, dimentsioa eta esperientzia dituen erakundeak direla, baina era berean, ahula eta zatitua, eta beraz, sarean lan egiteko dinamikak ezinbestekotzat jotzen dira.

Sare hori hazi eta indartzea BBKren interes handiko kontua da. Boluntarioritza- eta elkartegintza-gaietan horixe da BBKren Gizarte Ekintzaren apustu garrantzitsuaren oinarria den araua, eta horrek eraman gaitu Estatu mailan oraindik gaur egun aitzindariak diren proiektuak abian jartzera.

8.1 Gizarte Proiektuetarako Laguntza Programa

Programa hau, orain dela 12 urtetik hona, BBKren eta Hirugarren Sektorearen arteko lankidetzaren estrategikoaren adierazgarri nagusia dela esango genuke. Garrantzitsua da jasotzen duen baliabide-kopuru handiagatik (64 milioi euro 2001ean abian jarri zenetik) eta baita lagundu dituen gizarte-proiektuen garrantziagatik ere: 2.986 proiektu onartuta eta Bizkaian eta BBKren beste jarduera-eremu batzuetan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-entitate ia guztiek burututa.

Programa honen helburua gizarte-erakundeen gizarte-ekintzak ekonomikoki eta teknikoki laguntzea, elkartegintzako sarea indartzea eta parte-hartze soziala sustatzea besterik ez da.

Urtearen lehen seihilekoan Programaren XI. Deialdiaren ebazpena eman zen eta horren bidez programaren eremuetan eragina izan duten 226 gizarte-proiektu lagundu dira ekonomikoki (6.500.000 euroko laguntza).

Hirugarren Sektorearekiko Lankidetza

2002-2012 deialdiak	Aurkeztutako entitateak	Aurkeztutako proiektuak	Proiektuak onartu zaizkien entitateak	Onartutako proiektuak	Onartutako diru-laguntzak
GIZARTE BAZTERKETA	862	2.360	212	974	22.106.126
DESGAITASUN ETA GAIXOTASUNAK²	722	2.676	220	1.354	27.150.521
ADINEKO PERTSONAK	191	585	76	323	4.318.286
GARAPENERAKO LANKIDETZA	246	691	67	199	5.869.270
I+G+b	210	338	87	136	4.555.797
GUZTIRA	1.726³	6.650	500⁴	2.986	64.000.000

¹ Atal honetan sartu dira aurreko deialdietako "Laneratzeko enpresak" eta "Immigrazioa" epigrafeetako proiektuak, orain Programaren arlo guztietan zeharka parte hartzera pasa direlako.

² Atal honetan sartu dira 2002, 2003 eta 2004ko deialdietako "Senideak zaintzen dituzten pertsonak" epigrafeko proiektuak, 2005eko edizioaz geroztik lan-lerro guztietako parte direlako.

³ Logikoa denez, Programa honetan parte hartzen duten erakundeek proposamen bat baino gehiago aurkezten dute, eta horrek azaltzen du taulak jasotzen duen guztirakoa. Urte hauetan guztietan errepikapenak kontuan izan gabe proiektuak aurkeztu dituzten erakundeen kopurua 1.726koa da.

⁴ Halaber, Programak proiekturen bat onartu dien erakundeen kopurua, errepikapenak alde batera utzita berriz ere, 500koa da.

Garrantzitsua da aipatzea, era berean, azken Gizarte Ekintzaren Plan Estrategikoak ezarritako jarraibideei jarraiki, BBK-k finantza-jarduera garatzen duen Autonomia Erkidego ezberdinetan gizarte-arloko esku-hartzeak egiten hasi direla. Ildo horretatik Gizarte Proiektuen Programaren bidez 49 ekimen martxan jartzeko jarriko diren 1,252 milioi euroz gain, gaur egun hainbat probintzian proiektu berri eta aitzindarietan lan egiten ari da, eta horien bitartez Hirugarren Sektorearekin eta administrazio publikoekin lankidetza sendotu nahi da.

Testuinguru honetan kokatzen dira, esate baterako, APSA Alacanteko Desgaitasun Intelektuala dutenen aldeko Elkartearikiko elkarlana, Haurren Garapenerako eta Artatze Goiztiarrerako Zentroa eta gizarteratzerako eta lan-munduan txertatzeko Cami Obert programa martxan jartzeko; edo ASPANIONi, Valentziako Autonomi Erkidegoan minbizia duten haurren familien elkarteari emandako laguntza familiekiko talde-terapien programa bat egiteko; edo Albaceteko Desgaitasun Intelektuala duten Pertsonentzako Laguntzaren aldeko Elkartea laguntzea (ASPRONA), fisioterapia, psikologia eta terapia okupazionala garatzea ahalbidetu duena. Halaber, Aragoiko Heraldorekin batera lan egin da, "Aragoi Solidarioa" sariak konbokatzeke, Aragoiko Autonomia Erkidegoko ekimen solidarioak bultzatzeko eta "Aragoiko Merkatu Tradizionala" antolatu da, Aragoiko nekazaritzako elikagaien artisautza babesteko programa. Horrez gain, Autonomi Erkidego berean, Zaragozako gizarte-ekimeneko kooperatiba den Kairósekin lankidetzan, Tutoretzapeko Etxebizitza Programa eta BBK-Kairós Gizarte Gunea abian jarri dira, desgaitasunen bat edota gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzat eta bere senitartekoentzat, Zaragozako Udalarekin eta Aragoiko Gobernuarekin lankidetzan.

2011an bezala, Nueva Riojarekin lankidetzak jarraitzen du "La Rioja, un alma solidaria" sarietarako, Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko erakundeen proiektuei zuzendutakoa, eta baita "II Feria de Artesanía Agroalimentaria"-rekin ere, Errioxako lehen sektorearen ekoizpena eta merkaturatzea laguntzeko eta sentiberatzeko programa, Logroñon egindako azoka eta ekintzen bidez. Andaluzian AFAVIDArekin (Granadako Alzheimerra duten gaixoen senideen elkarte) batera egin da lan, estimulazio-programa integral bat martxan jartzeko; Almerian ALCERekin aldi baterako ostatu-zerbitzurako; eta baita ASEDOWNekin ere (Sevillako Down sindromearen Elkarte), lan-munduan txertatzeari buruzko programarako eta baliabiderik ez duten familiei zerbitzuak emateko.

8.2 **Bolunta** – Boluntarioria eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia

Bolunta - Boluntarioria eta Parte-hartzerako Bizkaiko Agentzia da. 2002an sortu zen, BBKren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta EDE Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmen baten ondorioz.



Boluntarioria eta elkartegintza solidarioa sustatzera zuzenduta dagoen Bizkaiko zentro modura definitzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeei, pertsona boluntarioei eta, oro har, boluntariorian hasi nahi duten pertsona guztiei zerbitzu integralak eta doakoak eskaintzen dizkiena. Bere jarduera-eremu garrantzitsuenak gizarte-erakundeei informazioa, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza ematea dira, bai eta boluntarioritari eta gizarte parte-hartzeari buruz sustapen- eta sentiberatze-ekintza orokorrak garatzea ere.

Boluntarioen eta euren erakundeen ekintza solidarioa laguntzeko eta indartzeko lan hori enborreko lau esku-hartzeren bidez egiten da:

- ✓ **Gizartearen sentsibilizazioa**, parte hartze sozialaren esanahiari eta garrantziari buruz.
- ✓ **Boluntarioritzaaren baloreen** aldarrikapen eta zabalpena.
- ✓ **Pertsona berriak hainbat ekimen solidarioetan** sartzen erraztea eta **elkartze-proiektu solidarioak** sortzen laguntzea.
- ✓ Elkarteek egiten duten lana eta **boluntarioritza-programen kudeaketa hobetzen** laguntzea.

2012an 60 sentsibilizazio-ekintza egin dira guztira, 15.000 pertsonarengana heldu direnak. Ekintza horien artean Boluntaren X. urteurrenaren ospakizuna dago, irailaren 29an BBK Aretoan egindako jai batekin amaitu zena; "Zurekin bat" kanpaina, Boluntarioritzaaren Nazioarteko Egunean kaleko hainbat ekintza egin zituen; baita "UNIKIDE" (Bizkaiko unibertsitateetan boluntarioritzaaren sustapena) eta "HIRIKIDE" (ikastetxeetan gazteak sentiberatzea) programaren bultzada ere.

Bestalde, boluntarioritari buruzko 21 Informazio Topaketa egin dira, eta aipagarria da 55 urtetik gorako pertsonen parte-hartzearen hazkuntza. Era berean, "NI BAI - YO SI" izeneko boluntarioritari buruzko erakusketa ibiltaria, "BAT EGIN - SUMATE" izeneko uda solidarioaren kanpaina eta beste batzuk mantendu egin dira.

Bestalde, agentziaren prestakuntza-eskaintza zabala mantendu egin da; 2012an guztira 116 ikastaro antolatu dira, ia 1.900 parte-hartzaileekin. Horrekin batera, Bizkaiko udalerrietan izaten dugun presentziak jarraitu egin du, komunitate-leku eta ekintza ezberdinetan antolatu diren hitzaldi, lankidetzak eta stand-en bidez.

Sareko lanaren arloan, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan etengabe parte hartzeaz eta Boluntariotzaren Estatuko XVI. Biltzarra (azaroan Barakaldoko BECen egin zena) laguntzeaz gain, 2012an hiru lankidetzak-akordio garrantzitsu egin dira: Getxoko Udalarekin, Sarekideri (Getxoko Boluntariotzaren Federazioa) etengabeko laguntza ematea; Bilbao Basket Fundazioarekin, Uxue Bilbao Basketen partiduetan elkarleen zerfegina ikusarazteko “Un partido, una causa” proiektuaren markoan; eta Euskaltelekin, bere lankideak parte hartze sozialaren inguruan sentsibilizatzeko.

Aipagarria da 2012an Boluntak urtero Gizarte Gaietarako Ministerioak ematen duen **Boluntariotzaren Estatuko Saria** jaso zuela, Asturiaseko Printzesaren eskutik, Estatuko Biltzarraren markoan. Lehenengoz jasotzen du honelako programa batek aipatutako saria. Era berean, eta oraingoan maila lokalean, **Fekoora Saria 2012** jaso genuen, inklusioaren eta aukera berdintasunaren arloan, “boluntariotzaren dinamizazioan egindako ibilbideagatik eta parte hartze elkarberrakidetzako konpromisoagatik”.

Bolunta Programa 2012an

Pertsona erabiltzaileak: boluntariotza, prestakuntza, aholkularitza, elkarrekin laguntza, espazioen eta baliabideen erabilpena eta abar	5.967
Elkarrekin kontsultak	1.232
Atenditutako elkarrekin	354

8.3 Ganbara (Elkarrekin hotela)

BBK-k 2007an abian jarritako ekimena da Ganbara, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta EDE Fundazioarekin batera. Elkarrekin eta boluntariotzari laguntza emateko Bolunta agentziaren jardura osatzen du. Programa hau 600 m²ko gune moderno batean kokatzen da eta bertan irabazi-asmorik gabeko entitateentzako zerbitzu, azpiegitura eta baliabideak daude. Entitateek aldi baterako edo une baterako erabil ditzakete euren jarduerak garatzeko.

Bizkaiko elkarrekin askotan adierazi dute bere jardura garatu ahal izateko azpiegiturak izatearen beharra: bileretarako, proiektuen aurkezpenetarako, pertsona boluntarioekin topaketak egiteko, eta horrelakoetarako leku fisikoak izatea. Horri gehitzen zaio gizarte-erakunde txiki pilo bat egotea, tamaina txikia izanik lokal bat alokatu eta egoitza izateko aski gaitasunik ez daukatenak. Behar horiei erantzuna emateko eta indartuz doan elkarrekin mugimenduaren pluraltasuna eta aberastasuna zaintzeko, Ganbarak aldi baterako egoitza sozial bezala erabil daitezkeen bulegoak eskaintzen ditu, elkarrekin aldi aldi jardueretarako gelak eta bilera-gelak, eta baita baliabide teknikoaren mailegu-zerbitzua ere: megafonia, ikus-entzunezko baliabideak, informatikoa, eta abar.

2012. urtean espazio ezberdinen erabilera-maila oso handia lortu da. Guztira 3.000 jardura baino gehiago antolatu dira eta horietan 51.000 pertsona inguruk hartu dute parte.



Ganbara Programa 2012an

Bulegoetan dauden entitateen kopurua (egoitzak)	17
Erabilera komuneko espazioen erabilera kopurua	3.029
Erabilera komuneko espazioen okupazio-ordu kopurua	8.129
Baliabide teknikoaren mailegu-kopurua	25
Pertsona erabiltzaileen kopurua guztira	50.371
Entitate erabiltzaileen kopurua guztira	167

8.4 Hirugarren Sektoreko Behatokia

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokia informaziorako, dokumentaziorako, ikerketa aplikaturako eta sustapenerako zentroa da, Bizkaiko Hirugarren Sektorea indartzen lan egiten duena eta irabazi-asmorik gabeko entitateen berrikuntza eta hobekuntza iraunkorra bultzatzen dituena.

2012ko jarduera, beste urteetako bezala, 2010-2012 aldirako ezarritako hiru lerro estrategikoen inguruan taldekatzen da; lerro horiek Behatokia ezagunago, dinamikoago eta zabalago egin nahi dute, Hirugarren Sektorea gehiago eta hobeto ezagutu dadin.

Lehenengo lerroari dagokionez, Behatokiaren lan zabalpen-ekintzak egin dira iaz ere, eta beste bi ikerketa-proiektu martxan jarri dira.

Bigarrenari dagokionez, Behatokiko eremuetako produktu operatiboak gehiago dibertsifikatu dira, finantzazioari buruzko datu-base bat inplementatuta (informazioa eta dokumentazioa); formatu ertaineko edo ibilbide luzeagoko ikerketa-proiektuak garatu dira; eta erakundeekin esperientziaren sistematizazio-prozesuak dinamizatzeko lan-metodologia berria ezarri da. Aldi berean, aurreko ekitaldietako formatu berberak ere mantendu dira: kudeaketako laburrak, faktoria sortzailea, mintegiak, tailerrak eta jardunaldiak, paperezko argitalpenak eta argitalpen digitalak, jardunbide onen bankuak, bideoak, Facebook eta Twitterreko presentzia, etab.

Hirugarrenari dagokionez, esan daiteke Behatokia Bizkaiko Hirugarren Sektoreko erakunde eta sareek baloratutako eta erabilitako tresna bat dela. Iaz ere, erakunde askok eta ia sare guztiek aldizka edo etengabe Behatokiarekin batera lan egin izan dute edo lan egiten dute.

Bestalde, aurreko urtean indartze-proiektuen bidez Sareen Sarearekin (formalizazio-prozesuan dagoen erakundea eta Euskadiko TSASko sare guztiak artikulatzen dituena), Edekarrekin eta Harresiak Apurtuz-ekin batera lan egin zen. Lerro berean bi jardunaldi sustatu dira: emakumeen alde lan egiten duten emakume-taldeekin eta bestea TSSko erakundeetako zuzendaritzekin.

Era berean, Sartu Federazioaren laguntzaz, argitalpen bat idatzi da TSSko erakundeetako oinarritzeko gaitasunei buruz; eta, bi sareek hala eskatuta, Astialdi Sarearekin eta Elkartean-ekin ekintzak egin dira.

2012an egindako ekintza aipagarrien laburpena arloka honakoa da:

Informazioa eta dokumentazioa

- ✓ Finantziarioari buruzko datu-base bat diseinatzea eta baliabideak biltzeari buruzko dokumentu bat egitea.
- ✓ *11 buletin digital (hileroko bidalketak, kudeaketako laburrak bidaltzearekin txandakatuta).*
- ✓ Interes-gunei buruzko alerten sistema bat diseinatzea
- ✓ Webguneetako espazioen kudeaketa: liburutegi birtualak (erreferentzia-liburutegia, gaikakoa eta legeei buruzkoa), interes-guneak, nobedade bibliografikoak, hemeroteka, agenda, estekak, etab.
- ✓ Informazio- eta dokumentazio-eremuko beste produktu batzuk kudeatzea: derrigorrean bete beharreko araudia eta erakundeak hobetzearekin lotutakoa: hirugarren sektoreari buruzko ikerketak.

Ikerketa

- ✓ Bizkaiko gizarteak Hirugarren Sektoreko erakundeei buruz duen pertzepzioari buruzko ikerketa-proiektua (2012an hasi eta bukatutakoa, argitalpenaren maketazioa eta itzulpena barne).
- ✓ *EDEKArekin batera egindako ikerketa-proiektua (amaituta).*
- ✓ Bizkaiko TSASen historiari buruzko ikerketa-proiektua (2012an amaituta, argitalpenaren maketazioa eta itzulpena barne).
- ✓ Bizkaiko TSASen Historiari buruzko proiektuaren emaitzak zabaltzeko proiektua (2012an hasita, enkargua zehazten, eta 2013an amaituko da, sustapen-, informazio- eta dokumentazio- eremuen elkarlanean).
- ✓ TSASko erakundeen balio oso eta balio erantsiari buruzko ikerketa-proiektua (egiten).
- ✓ Liburu Zuri berriaren planteamendua.

Sustapena

- ✓ Hirugarren Sektoreko erakundeetako emakume zuzendarien foroa (bigarren saioa, lehenengo saioko parte hartzaileek eskatuta; otsailak 16)
- ✓ *Mintegia: Emakumeekiko esku-hartzearen errealitatea eta erakundeen arteko elkarlana (2011ko mintegiko ondorioen dokumentua atzera itzultzea; martxoak 15; eta osteko bilera parte hartzaileen ekimenez, zabalpenean parte hartuz- euren kabuz biltzen jarraitzen dute).*
- ✓ Hirugarren Sektoreko erakundeetako emakume zuzendarien foroa (bigarren saioa lehen saioko parte-hartzaileen eskariz; otsailak 16).
- ✓ *Mintegia: Emakumeekin esku-hartzeak egiten dituzten erakundeen errealitate eta elkarlana (2011ko mintegiko ondorioen dokumentua berriz ematea; martxoak 15; eta ondorengo batzarra parte-hartzaileen eskariz, beronen zabalkundearen parte hartuz – euren kontura batzartzen jarraitzen dute).*
- ✓ *Faktoria sortzailea 4: "Inklusiorako eta gizarte-eraldaketarako artea"* (azken dokumentua ixtea eta parte hartzaileekin kontrastea egitea)
- ✓ *Mintegia Harresiak Apurtuz-ekin: ondorioen dokumentua + dekalogo egitea eta itzulketa-jardunaldia egitea (urriak 19) / "Sozial Hitz" 2012.*
- ✓ *Erakundeen arteko elkarlanari buruzko tailerra (maiatzak 29).*
- ✓ *Sentsibilizazioari, eraginari eta komunikazioari buruzko mintegia (formatu berria: platikando): maiatzak 22, uztailak 10 eta urriak 16.*
- ✓ *Mintegia: Kudeaketarako adierazleak eta adierazleetan oinarritutako kudeaketa (urriak 22 eta azaroak 5; hirugarren saioa 2013ko urtarrilean egingo da, parte hartzaileek eskatuta)*
- ✓ *Mintegia: kongregazio erlijiosoak gizarte-ekintzaren eremuan, oraina eta geroa (abenduak 18, 2013an jarraituko du; urtarrilaren 15ean eta otsailaren 18an).*
- ✓ *Bizkaiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Diagnostikoaren eta Sareen Sarearen aurkezpen-jardunaldia (otsailak 1).*

- ✓ “Hirugarren Sektoreko erakundeek gizarte-erantzukizuna” argitalpenaren aurkezpen-jardunaldia (ekainak 26).
- ✓ “Inklusiorako eta gizarte-eraldaketarako artea” argitalpenaren aurkezpen-jardunaldia (urriak 19).
- ✓ TSASri eta sektore pribatuarekiko lehiakortasunari buruzko estatuko aurkezpen-jardunaldia, Luis Vives Fundazioaren laguntzaz (azaroak 12).
- ✓ Elkarrizketa zibilar buruz Elkartean-ek antolatutako mintegian parte hartzea (azaroaren 15eko mintegiko ponentzia eta dinamizazioa)

8.5 Indartu Programa

Indartu **Bizkaiko Hirugarren Sektorekoak diren** eta gizarte-arloan esku-hartzten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako Programa da: fundazioak, elkarteak, gizarte-ekimeneko kooperatibak eta bestelako irabazi asmorik gabeko egitura jurifikoak, eta enpresa txiki eta ertainak (50 langiletik behera).

Indartu Programa EDE Fundazioarekin lankidetzan egiten da, eta hirugarren sektoreko erakundeek kudeaketa-prozesuetan dituzten hutsuneak hobetzeko egin da, eurekin etengabe kontaktuan egon ostean detektatuko hutsuneak hain zuzen ere. Diagnostiko horren arabera, Bizkaiko irabazi asmorik gabeko gizarte-sektorea oso atomizatuta dago eta erakunde askok osatzen dute (txikiak eta ertainak); erakunde horiek euren efizientzia hobetzeko eta inguruko aldatetara (baliabideen murrizketa, proiektuen kudeaketan kalitate, profesionaltasun eta efikazia eskakizunek gora egitea, gardentasuna, barne-demokrazia, etab.) egokitzeko sistemak eta tresnak behar dituzte, eta ez dute kudeaketan laguntzeko kanpo-zerbitzuak (iraunkorrak edo puntualak) kontratatze behar beste diru; kasu batzuetan, gainera, ez dute erakundearen administrazioan edo kudeaketan bakarrik aritzen den profesionalik.

Ikuspuntu horretatik, **Indartu** programak erakundeei kudeaketa hobetzen laguntzen die, eta pertsona eta talde-arduradunek euren gaitasunak garatzea eta gaitasun, sistema edota tresna berriak hartzea dakar, kanpo-laguntza izateari uzten diotenean euren kabuz erabiltzeko gai izan daitezten. Horretarako, aholkularitza-talde baten laguntza du, esku hartze sozialean sartutako eremuetan aditua dena: talde hori antolakuntza-garapenean funtsezkoak diren faktoreetan kontzentratzen da, eta faktore horiek erakundearekin batera identifikatuko ditu.

2012 urtean zehar Indartu Programaren bidez 30 gizarte-entitateen 36 proiektu lagundu dira, datozen eremuetan:

- ✓ Erakundeak finkatzeko eta garatzeko aholkularitza:
 - Orientazio estrategikoa eta planifikazioa (plan estrategikoak eta kudeaketa-planak egitea);
 - Antolaketaren egituraketa eta hobekuntza (ekipoen funtzionamendua hobetzea, antolaketa-garapena, lidergoa, barneko koordinazio- eta komunikazio-sistemak hobetzea);
 - ekonomia- eta finantza-kudeaketarako sistemak hobetzea;
 - giza baliabideen kudeaketa hobetzea (prestakuntza-beharren diagnostikoa eta prestakuntza-planak egitea, giza baliabideak kudeatzeko sistemak hobetzea, garapen profesionaleko prozesuak, *coaching*-a).
- ✓ Zerbitzuak eta proiektuak identifikatzeko, martxan jartzeko, kudeatzeko eta ebaluatze laguntza:

- Proiektu berriak identifikatzea eta baloratzea;
 - Esku-hartzeko zerbitzuak eta proiektuak (batez ere proiektu berritzaileak) definitzea, bideragarritasun-azterketa egitea, martxan jartzea edo eguneratzea eta berrantolatzea;
 - Laguntza tekniko zerbitzu berriak diseinatzeko eta proiektuak egiteko;
 - Proiektuak hobeto kudeatzeko laguntza;
 - Proiektuen eta zerbitzuen ebaluazioa.
- ✓ Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko laguntza:
- Laguntza tekniko kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzeko, mantentzeko eta hobetzeko.
 - Kalitate-metodologiak erakundeetan ezartzeko laguntza: prozesukako kudeaketa.
- ✓ Erakundeen berrikuntza sustatzeko laguntza:
- Berrikuntza- eta lehiakortasun-ibilbideak definitzeko laguntza.
- ✓ Zuzendaritza-batzordeak indartzeko laguntza:

2012an *“Tejiendo redes y alforjas”* taldekako laguntzen eskaintza finkatu da, hiru eskaintzarekin: zuzendaritza-batzordeak indartzea, finantza- eta ekonomia-kudeaketa eta kooperazio-proiektuen kudeaketa. Laguntza-metodologia horrek lanerako espazio bateratu bat eskaintzen du Hirugarren sektoreko erakundeen eta erakundeak indartzen adituak diren pertsonen artean, partekatutako ikaskuntzaren bidez hobekuntza sustatzeko.

8.6 Bidera Programa

Erakundeak indartzeko eta horiek osatzen dituzten pertsonen gaitasunak garatzeko ikasketa-espazio bat da **Bidera**. Hiru programa ditu:

Lidera. Ikasketa-espazioak sustatzen ditu, erakundeak zuzentzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeko bereziki diseinatuta daudenak. Metodologia aktibo batean oinarritutako ikasketa esanguratsua da, ikasketa-modu asko konbinatzen dituena: prestakuntza teoriko-praktikoa, bizipenetan oinarritutako prestakuntza, coaching-a eta ikuskapena, eta abar. Profil eta kolektibo ezberdinei, bereziki euren kargu pertsonak dituztenei, zuzenduriko kudeaketa eta lidergotzako iraupen labur eta luzeko prestakuntza-ekintzak eskaintzen ditu Liderak.

Mentoring. Erakundeei eta horiek zuzentzen dituzten pertsoneri tutoretza programa bat eskaintzen die. Mentoring-a ikasketa-prozesu pertsonala da. Horren bitartez pertsona batek bere garapen pertsonal eta profesionalaren jabetza eta ardura bere gain hartzen ditu. Gutxi gorabehera 18 hilabete irauten dituen harreman pertsonalizatua da. Tutoretzen bitartez pertsonak ikasketa-prozesu bat bizi ahal izango dute eta horrek haien erakundeko eta sektoreko erronkei aurre egiteko behar dituzten gaitasunak eskuratzeko ahalbidetuko die.

Innova. Soziki berritzaileak diren proposamenak entzuteko eta haien bozgorailu izateko espazio bat proposatzen du. "Berria" denari gerturatzen gatazka jakinez neurri handi batean aukerak esperientziatik abiatutako ikasketan daudela, eta baita herritarren ekimenarekin, dinamizazio komunitarioarekin eta parte hartzearekin historikoki loturik dauden alderdiak berreskuratzean ere. Topaketako eta ezagutzaren kudeaketako espazioak sustatzen ditu, sarea egiteak, topaketak eta ezberdinen artean ezagutza partekatzea toki berrietara modu eraginkorrean eta eraldatzailean iristen laguntzen dueneko ziurtasunez.

Gaur egun, baliabide publiko eta pribatuen beherakadaren ondorioz, erakundeek egiturazko egokitzapenak egin behar izan dituzte. Horien ondorioz, prestakuntza-programetan eta antolaketa-garapenerako programetan gutxiago hartzen dute parte. Testuinguru horretan, **Bideraren** proposamenak bereziki garrantzitsuak dira, askotan epe laburrean prestatzeko aukera bakarria diren heinean. Beste urte batzuen aldean matrikula kopuruak behera egin badu ere, **Biderak** iaz **zuzendaritza-gaitasunak hartzeko** bi programa eskaini zituen: Lidergo-programa eta Zuzendaritzarako Gaitasun Orokorrak; horrela, 2011n baino jende eta erakunde gehiagorengana heltzea lortu da.

Bidera Programa 2012an

Programa	Bekadunak
Lidergo-programa	21
Mentoringa	6
Coachinga	10
ZGO (zuzendaritzarako gaitasun orokorrak)	13
Kontabilitate-tailerra	20

8.7 Beste esku-hartze batzuk

2012 urtean, Emakumearen Sustapenerako Bizkaiko Fundazioa, BBK-k osorik finantzatuta, bost arlotan garatu ditu bere programak: emakumeentzako prestakuntza, garapen pertsonalerako eta gaitasun profesionalerako edo lan-munduan txertatzeko baliabideak emateko; emakumearen sustapena kultur arloan; emakume-elkarteei emandako babesa eta sustapena eta instituzioetako eta erakundeetako parte hartzea, Bizkaiko gizartean emakumearen ikuspegia aplikatzeko; eta emakumeen ekarpenari buruzko sentsibilizazioa, batez ere genero-indarkeriaren kontrako ekintzetan. Orobat, elkarlanak egin dira Bizkaiko eragile sozial publiko zein pribatuekin.

Bestalde, 2012an El Correo Digitalekin elkarlanean jarraitu da, "Vida Solidaria" proiektua garatzeko; proiektu hori gizarte-bazterketaren kontra lan egiten duten Bizkaiko erakunde, kolektibo, elkarte, fundazio eta pertsonen topagunea den Interneteko katea da, proiektu sozial, bizipen eta beharrak zabaltzeko. Plataforma birtual horrek errealitate desberdinak islatzen ditu, albiste, erreportaje, elkarrizketa eta lekukotasun pertsonalen bidez; eta gainera elkartean, kolektiboen eta norbanakoen eskura dagoen tresna ere bada; izan ere, parte hartzeko aukera zabala ematen du. Informazioen eta agendaren bidezko gizarte arloko albisteak emateaz gain, kolektibo sozial eta esperientzia pertsonalak islatzen dituzten blog guztiei espazioak ematen dizkie.

9. Ingurunea eta ingurumena

Garapen iraunkorra "pertsonen egungo beharrak, datozen belaunaldiek euren beharrak asetzea kaltetu gabe asebetetzen dituen garapena da". Intuizioz esan dezakegu jarduera iraunkorra mantendu daitekeena soilik izan daitekeela. Egun badakigu giza jarduera asko ez direla iraunkor edo jasangarriak epe ertain eta luzera gaur egun diren modukoak izaten jarraitzen badute.

Zalantzarik gabe, **ingurunearen zaintza** eta eskaintzen dizkigun baliabideen **ustiapen iraunkorra** gizarte moduan eutsi beharreko erronkarik garrantzitsuenak dira. 1997ko Kiotoko Akordioetan agerian geratu zen ingurune naturalaren eta garapen ekonomikoaren arteko orekaren ahultasuna. Errealitate horrek arazoa mundu mailara zabaltzen du. Baliabideak geroz eta gehiago ustiatzen dira eta epe luzera frogatu gabeko kontsumo- eta ekonomia-garapen ereduak daude indarrean. Honek gogoeta garrantzitsuak bultzatzen ditu norbanakoengan eta baita komunitate-mailan ere.

Gogoeta horien ildora BBKn **iraunkortasunarekin zerikusia duten praktika on eta balio** multzo bat aintzat nahi izan dugu gure esku-hartze guztietan. Gizarte Proiektuetarako Laguntza Programaren deialditik hasi eta gure ikasketa-zentroetan garatzen diren gizarte eta hezkuntza koesku-hartzeak barne hartuz. Gizarte Ekintzaren programa guztiak ingurumenaren ikuspegia txertatu dute zehar-lerro gisa, gure jardueren eraginaren neurketarako parametro modura.

9.1 Hezkuntzaren eta zabalkundearen aldeko ahalegina

Ukaezina da neurgarria izango den edozein aldaketak zenbait balio finkatzea eskatzen duela. Eta BBKn balio horiek zabaltzeko eskura ditugun bide guztiak urratzen ditugu, hezkuntza-, heziketa- eta zabaltze-programak barne hartuz.

Arlo honetan tresnarik garrantzitsuenetarikoa **Pedagogia Saiakuntzarako Zentroa** da, BBKren Sukarrietako instalazioetan kokatuta dagoena. Urdaibaiko padura bezalako ingurune miresgarrian kokatutako ekipamendua izanik, bertatik ahalik eta probetxu gehien atera behar dugu. Urdaibai, Biosferaren Erreserba izanik, gaur egun ekosistema naturalak eta giza jarduerak bateratzen dituen Euskal Herriko kokaleku gutxienetarikoa da. Horregatik, zentroa ingurunea modu naturalean ezagutzeko leku ezin hobean dago.



Urtean osoan eta programa honen baitan, **hezkuntza- eta pedagogia-jarduera** multzo garrantzitsu bat ematen da, Bizkaiko ikastetxeetako gaztetxoei zuzendutakoa. 1982tik Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan garatu da programa. 2012 urtean 3.121 gaztetxo eta 88 ikastetxetako 201 profesional igaro dira zentro honetatik astebeteko egonaldietan.

9.2 BBK Bioeskola

2012ko maiatzean BBK Bioeskola jaiotzea ahalbidetu zuen hitzarmena sinatu zen. Proiektu horrek, BBKren Gizarte Ekintzak, Bilboko Emausek eta Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoak sustatuta, eta Osakidetza-Bizkaiko Buru Osasuneko Sarearen, Zamudioko Udalaren eta Innobasqueren laguntzarekin, nekazaritza-produktu ekologikoen **zuzeneko produkzio eta komertzializazio** ekimen bat inplementatzen du. Bere helburu **nagusia gizarte-bazterketan edo horretarako arriskuan dauden gizarteratzea eta laneratzea** da; horretarako, gizarteratzerako banakako ibilbideak jarriko dira martxan, enplegarritasun-mailari egokituta.

Gainera, BBK Bioeskolak prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egiteko espazio bat eskainiko du; espazio horren bidez gizarteari orokorrean eta eskola-populazioari zehazki,

tokiko garapen iraunkorrerako eredua erakutsiko die, **hurbileko nekazaritza ekologikoan** oinarritutakoa.



BBKren Gizarte Ekintzak osorik finantzaturako proiektu honen markoan, baratze ekologiko bat sortu da, Zamudioko Parke Teknologikoak utzitako 30.000 m²-ko bi partzelatan. Lursail hori lan-merkatuan sartzeko arazoak dituzten pertsonen lan-eremua izango da, eta Bizkaiko Buru Osasuneko Sareak aukeratutako 24 gizon-emakumetako talde baten laguntza izango dute. Bertan egindako lanari esker, gainera, **jarduera ekonomiko autojasangarri** bat sortuko dute.

Proiektuaren helburuak honakoak dira: alde batetik, bazterketa jasan ahal duten pertsonen laneratzea hobetzea, prestakuntzaren bidez, eta krisiaren ondorioz hazi den sektorearen trebakuntza, lehenengo sektorearena hain zuzen ere. Beste alde batetik, Bizkaiko ekoizpen ekologikoaren hazkuntza eta, ondorioz, lehen sektorea bera indartzea. Azkenik, Bizkaiko biztanleak, prestakuntzaren bitartez, hurbileko kontsumoaren abantailen inguruan sentsibilizatzea, sistemaren iraunkortasun-terminoetan.

9.3 Urdaibai Bird Centre

Urdaibai Bird Center **ikerketa eta zabalkunde zientifikorako** zentroa da eta BBKren Gizarte Ekintzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin garatu da. Hegaztiak eta euren habitatak aztertzen ditu.



Urdaibaiko Biosferaren Erreserban kokatutako zentro hau Arantzadi Elkartek kudeatzen du, eta **zentro irekia** da. Bertan, hegaztien eta haien habitata hobeto ezagutu, babestu eta artatzeaz gain, jendeak bertako jardueretan parte har dezan bultzatzen da, elkartruke, zerbitzu eta heziketa-jardueren bitartez.

azioetarako bisitaldi-programa sustatu du BBK-k **JOAN DEN URTEAN, TAMBIEN ETA GONBEKOEI** zuzenduta. Bisitaldi horietan bertatik bertara erakusten dira hango lan-metodoak; izan ere, metodo horiekin ekosistemak ikertzeko eta monitorizatzeko teknologia berriei goi mailako zabalkunde zientifikoa gehitzen zaie.

Horrez gain, 2012an BBK-k 4 ikerketa-beka jarri ditu biologia edo ingurumen zientzietan titulaturako 25 urtez azpikoentzat, zentro horretako jardueretan ikerketak garatu ditzaten.



9.4. Lehen Sektorea Sustatzeko Programa

Lehen sektorea BBKren Gizarte Ekintzaren ardatzetako bat da duela hogeita hamar urte baino gehiagotik hona.

Lehen Sektoreko eragileekin den lankidetzaz **baliabide naturalak ustiatzeko eredu iraunkorraren** alde hartutako konpromisoan oinarritzen da. Abeltzaintza eta nekazaritza sektore garrantzitsuak dira, BPGari egiten dioten ekarpenagatik baino, oreka naturalaren eta lurraldea ingurumena errespetatuta okupatzearen erreferente izateagatik, eta biak ala biak eragile erabakigarriak dira lurraldearen antolakuntza ekonomikoan. Irizpide horretan oinarrituta, BBKren esku-hartzea, aspaldi honetan, ustiapen txikietan oinarritutako **ekoizpen-eredu tradizionalak** jagotera zuzentzen da, baserritarrei azoka-zirkuitu bat eskainiz euren lehengaiak eta eurek egindako produktuak kontsumitzaileei zuzenean saltzeko.

Usadiozko abeltzaintza- eta nekazaritza-azokak leku aproposak dira gure baserritarrek produktuak merkaturatu ditzaten.

Salmenta zuzenerako bidea jorratzen du, bitartekaririk gabe, eta azalera handikoen edo handizkarien banaketa-zirkuituen aldean bestelako aukera bat eskaintzen dute. Bidezko prezioak bermatzen dizkie baserritarrei, eta hurbilekoak diren kalitatezko produktuak, berriz, kontsumitzaileei.



BBK-k sustatzen dituen nekazaritzako eta abeltzaintzako azoken artean, Bilboko Santo Tomasekoa, Gernika-Lumoko Azken Astelehena eta Abadiñoko San Blasetakoa jarraitzen dute ezagunenak izaten, baina lehen sektorearen sustapen-lanak baditu beste hitzordu garrantzitsu asko ere. 2012an, BBK-k parte hartu zuen lehen sektoreko produktuak merkaturatzeko 172 azokaren antolakuntzan.



Horrela, BBK 113 nekazaritza azokatan egon izan da, abeltzaintzako 12tan, baita gai bakarrekotan 21etan ere (gazta, txakolina eta sagardoa) eta itsas produktuen inguruko beste bitan (Bermeo eta Ondarroan), horien antolakuntza-lanak bere gain hartuz, horrelako ekitaldietarako berriaz diseinatutako erakustokiak baserritarren esku jarritz, eta publizitaterako babesa eta sarietarako dirua emanez.

BBK-k kalitatezko enplegua sortzearen alde egiten duenaren erakusleio dira **ekoizle gazteei emandako laguntzak**. Diru-laguntzak eta finantzaketa biguneko bideak eskaini izan dizkie, Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailarekin elkarlanean aritzeko protokoloaren bidez. Bestalde, ohiko nekazaritza- eta abeltzaintza-erakustaldiak **bidezko merkataritzaren produktuen sustapenarekin** batera ari dira egiten azkenaldiko ekitaldietan. Ekoizpen iraunkorraren beste aldaera bat da azken hori, oraingoan Hegoaldeko herrietatik datorkiguna.

BBKren Lehen Sektorea Sustatzeko Programa gizarteratzearen aldeko hainbat enprekin adostutako hitzarmen garrantzitsuek osatzen dute. Hitzarmen horien bidez, lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboek ogibidea izan dezakete azoka-esparruetako azpiegitura muntatzen eta desmuntatzen.

9.5 Uzta Landuz, iraunkortasuna ereiten dugu

Uzta Landuz-Solidaritatega Ereiten Dugu egitasmoa BBK-ko langile batzuen ekimenetik sortu da. **Korporazioko boluntariora** ekimena da, izan, BBKren Gizarte Ekintzaren laguntzarekin,

gizarte-bazterkeriak sortutako zaugarritasunari erantzuten dioten zenbait gizarte-erakunderekin batera egindako hausnarketak eta horiengana zerbitzu eske hurbiltzen diren pertsonen ezaugarriek sortutako kezka eraginda. Izan ere, gainean dugun krisi ekonomiko latz honek gizarte-bazterketako profil berri bat sortu du, gizarte-prestazioak (janari-eskaintza, sarritan) inoiz eskatu ez zituzten familiak eta kolektiboak ukitu izan baititu azken urteotan; lanik gabe geratuta, ez dute baliabide nahikorik euren oinarritzko beharrei aurre egiteko.



Goilurra-kin batera, Uzta Landuz jarri da martxan. Barakaldoko Goiztiri elkartearen laneratzeko enpresa da lehena, eta bere helburu nagusia gizarte-bazterkeria egoeran direnentzat lana sortzea du. Uzta Landuz proiektuaren bidez, BBK-Kutxabank eta BBK-Gizarte Ekintzako langileek ortuko produktuen otarra bat ematen diete astero Caritas-ek aukeratutako baliabiderik ez duten hainbat familiari.

Produktu horiek Goilurrak Larrabetzun boluntariora seniorren proiektu zabalago baten karira kudeatzen duen nekazaritza-ustiapenekoak dira. Erretiroa hartua duten bi baserritarrek beren ezagutza jartzen dute enplegua eta elkartasuna sortzen duen gizarte-ekimen horren eskura.

Elkartasunezko egitasmoa da, **iraunkorra**, inguruarekiko konpromisoa eta gauzak egiteko beste modu bat erakusten dituena. **Kontsumo arduratsua** bultzatzen duen proiektua, inondik ere, hurbileko nekazaritza-produktuen otarra baliabiderik gabeko familiei emateaz gain BBK-ko langileek euren artean ere kontsumo-taldeak sortzea ahalbidetzen baitu.

9.6 Aparka, mugikortasun iraunkorra

Aparka proiektua Bilboko Emausen SCIS eta BBKren Gizarte Ekintzaren arteko lankidetzatik sortu da, biek **mugikortasun iraunkorra** xede duten egitasmoak inplementatzeko egindako apustutik

Getxoko Cedemos Mugikortasun Jasangarriaren Zentroan kokatzen da **bizikletak aparkatzeko hiriko sistema** hau, aitzindaria da European, segurua da eta bizikleta publikoaren sistema aurreratuenen prestazio guztiak edukitzeaz gain, bizikleta pribatuen aparkaleku ere bada. Bateragarria bizikleta publikoaren beste sistemekin, bizikleta elektrikoak berriz kargatzeko egokitzea onartzen du.

Proiektua 2012an abiatu da, lehen prototipoa diseinatu, patentatu eta egin ondoren. Hasiera batean, Getxon kokatuko dute, Areetan, eta lehendik testatzea egin duen programa berritsu batekin ibiltzen da, Lonjaus-ek hiri-txirrindulari talde baten zuzeneko esperientzian oinarrituta garatutakoa. Sistemaren erabilgarritasuna, funtzionalitatea eta erabiltzaileen beharrian eta ohituretara lortzen duen egokitze-maila erabakigarriak izango dira estatuko hainbat udalerritan apurka-apurka ezartzen joateko, mugikortasun iraunkorraren sistema gisa.

9.7 BBK Basoa

Ingurumena berroneratzeko proiektua da, Lurgaia Fundazioarekin elkarlanean garatua Durangaldeako (Bizkaia) lurretan, 3 Ha-ko lursail batean. 2012an bertako paisaia berreskuratzeko lanekin jarraitu izan da, eta 510 pertsonen hartu dute parte sei esku-

hartzetan banatuta. Sastrakak kendu eta basoa garbitu izan da, baita 3.000 pago, haritz, urki eta elorri landatu ere.

9.8 Pakea Bizkaia 2010-2014

Proiektu honen helburu nagusia zera da, nabigazioaren eta **ingurumena errespetatzearen** artean ematen diren sinergiak ezagutaraztea. Horretarako, garapenerako heziketarekin loturiko balioak sustatzen ditu.

Joan den urte osoan irteerak egin izan dira talde txikietan Pakea Bizkaian nabigatzera, hainbat kolektiboetara zuzendutako jardueren barnean, batez ere gazteei eta familiei. Programan parte hartu dutenek eskifaiarekin bizipen sakonak partekatzeko aukera izan dute, eta, bide batez, nabigazioko oinarrizko ezagutzak jaso izan dituzte.

Bestetik, Bizkaiko zenbait ikastetxek aukera izan dute Pakeak burutzen dituen heziketa-jardueretan parte hartzeko. Jarduera horietan, eskifaia eta belaontziko horien bizipenak ezagutzeaz gain, balio batzuk transmititzen dira, talde-lanarekin eta gizakiaren jarduerak planetan eta ozeanoetan sortzen dituen ondorioekin zerikusia duten baloreak, hain zuzen. Ingurumena eta bere bioaniztasuna guztien artean zaintzeko erantzukizuna bultzatzen da, era horretan, ikasleen artean.

9.9 Salbamendua eta Sorospena Bizkaiko hondartzetan

2012an ere indarrean jarraitu du BBK eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak "*Bizkaiko hondartzen kudeaketa- eta kalitate-plana*" garatzeko. Hitzarmen hori dela bide finantzatu izan ditu BBK-k Bizkaiko salbamendu- eta sorospen-taldeek erabili duten azpiegitura eta tresneria, medikoa nahiz farmazeutikoa. Programa hau [Hondartza Denontzat](#) finantzatuz osatu da, desgaitasun fisikoa dutenei hondartzetarako erraztasuna eskaintzen dien zerbitzua, aurreko urteetan bezala.

10. Oinarrizko eta Amateur Kirola Sustatzea

2012an ere BBK-k gogor jarraitu du lanean oinarrizko kirola zein amateurra sustatzen, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzak-hitzarmenak sinatuta. Horrela, BBK-k diruz lagundutako esku-hartzeen artean, aipatzekoak dira Herriarteko Pilota Txapelketa, Federazioaren txirrindularitza-eskolei emandako laguntza, Athletic Fundazioarekin duen lankidetzak edo **Herri Krosa**; jarduera horiek guztiek 40.000 parte hartzaile baino gehiago izan zituzten pasa den urtean. Mendizaletasunaren arloan, berriz, **Pagasarriko XXII. Martxa** egin da, eta nazioarteko **Kutxabank Mendi Film Festival** jaialdiaren beste edizio bat, hamar egunetan mendiko zineari eskainita 6.500 ikusle baino gehiago bildu izan dituen.

10.1 BBK Mundialitza

BBK Mundialitza **kirolaren inguruko topaketa kulturala** da duela urte batzuetatik. 2012an txapelketa Sarrienako futbol zelaietan jokatu da, eta gizonezkoen 16 taldek eta emakumezkoen 8k hartu dute parte, Afrika, Europa eta Amerikatik etorritakoak. Txapelketa integrazio ikuspegitik prestatu da, eta talde bakoitza hemengo eta kanpoko pertsonen osatuta egon da.

11. Gizarte Etxebizitza

BBK-k gizarte etxebizitza programa bat du indarrean 2010etik, Bilboko Udal Etxebizitzak sozietate publikoarekin lankidetzan. Programa horren egikaritzan, BBK-k herritarren eskura jarri ditu Gaztelondon, Errekaldeko barrutian, bere jabetzakoak diren BOEn sustapeneko 40 etxebizitza -beren eranskin eta guzti-, **alokairu sozialeko** erregimenean erabil ditzaten.

Proiektu horrekin, BBK-k erantzuna ematen dio bizkaitarrekin duen konpromiso nagusienetakoari, hots, bateko edo besteko bideak erabiliz **etxebizitza babestuak eskuratzera** erraztea, bereziki gazteenei. Izan ere, Bilboko Udal Etxebizitzai higiezinak doan utzi dizkie 50 urtez.

12. Kultura eta sormena

1994tik BBK Fundazioaren bitartez bideratu da Gizarte Ekintzaren kultur eskaintza. Artea-, literatura-, euskara- eta ikerketa-arloetan lankidetzara eta esku-hartze aukera zabala biltzen duen erreminta da BBK Fundazioa. Askotariko programak biltzen ditu eta BBK Gizarte Ekintzaren aurrekontuaren % 20 inguru inbertitzen da horien antolakuntzan.

Hona hemen BBKren kultur eskaintza egituratzen duten lau ardatzak:

- ✓ **Kultura guztion eskura egotea bermatzea.**
- ✓ **Kultura-berreskurapena bultzatzea**, bertako kultur tradizioa eratzen duten elementuak berreskuratu, zaindu eta biziberrituta.
- ✓ **Kultura, sormena eta berrikuntza berrindartzen laguntzea**, bere adierazpide guztietan.
- ✓ **Kultur balioak zabaltzea, hezkuntzaren esparruak erabilia** eta gazteenei kultur adierazpideak hurbilduta.

12.1 BBK Sala

2010eko martxoan inauguratutako BBK Sala hau ezinbesteko erreferente bilakatu da Bilboko gaur eguneko bizitza kultural, sozial nahiz aisialdirako. Gune balioanitz honek aukera ematen du BBKren Gizarte Ekintzak antolatzen edo babesten dituen hainbat eta hainbat jarduerara hiri erdian dagoen toki bakar batean egiteko, tokiak jarduerari berezko nortasuna eranstean diela. Bere ezaugarri bereziei esker, zabalik dago bestelako formatu batzuetako **abangoardiako kultur esperientzia berrietara** ere, ekimen publiko edo pribatuek hartzen ez dituzten arloei aukera ematean.

Hiru solairuko gune honek mila lagun har ditzake barruan, eta egokitutako eserlekuak eta sarbideak ditu desgaitasun fisikoa duten pertsonentzat. BBK Salak antzinako Gran Via zinemak zuen jatorrizko egiturari eutsi dio. 125 m²-ko agertoki nagusia eta 300 m²-ko besaulki-patioa ditu, eta gainean anfiteatroa du. Salaren besaulki-patioa da bere ezaugarriarik deigarrienetakoa, tolestutzen diren 300 besaulki ditu eta. Errail sistema baten bitartez besaulkiak agertoki nagusiaren azpian gorde daitezke. Era horretan, oztoporik gabeko leku zabalagoa eskatzen duten jarduerentzako aukera eskaintzen du.

Kulturazkoak baino ez diren jardueraz gain, hala nola erakusketak, musika-ospakizunak, formatu bereziko antzezlanak, hitzaldiak eta zine-zikloak, BBK Salak tokia egiten die **ekitaldi**

sozialei ere: prentsaurrekoak, aurkezpenak eta BBKren interes-taldeekin eta Bizkaiko beste gizarte-taldeekin egindako bilerak, esaterako.

12.1.1 Erakusketak

2012an gauzatu diren arte-erakusketa nagusienak honako hauek dira:

- ✓ Joachim Schmid argazkilari entzutetsuaren "O Campo" lan-bilduma. Joachim Schmid argazkilari entzutetsuaren "O Campo" lan-bilduma. Satellite bidez hartutako argazkiekin Brasilgo futbol zelai batzuen irudiak jasotzen ditu. Irudi horietan, egileak, futbol-zelaiek hiri handietako auzoetan integratzeko egindako ahalegina erakutsi digu, nahiz eta bide horretan, dimentsio eta formei dagozkien araudi guztiak urratu behar. Erakusketa Athletic Fundazioarekin elkarlanean antolatutako "Thinking Football" hitzaldi-zikloarekin batera egin da.
- ✓ Victor Vasarely-ren erakusketa. Pop-art mugimenduaren ordezkari nagusitzat duten hungariar artista honen lanik gehienak Parisen egindakoak dira. Haren hogeita hamar margolan erakutsi ziren erakusketan, 1948 eta 1991 bitartean egindakoak.
- ✓ *Kutxabank Mendi Film Festival* jaialdia zela eta, erakusketa interesgarria egin zen Santiago Yaniz-en argazkiekin. Erakusketaren izenburua, "Mendi Panoramikak".
- ✓ Halaber, erakusketa bat antolatu zen "Hermano Lobo" aldizkari satirikoaren azalekin. 1972tik frankismoaren azken urteetan argitaratu zen aldizkari hark Chumy Chumez, Forges edo Perich bezalako umoregileen parte hartzea izan zuen. Erakusketa "La Risa de Bilbao" jaialdiaren egun beretan egin zen, azken honetako idazleen topaketa eta hitzaldiak ere gure Salan izan ziren-eta. Horien artean, Bernardo Atxaga, Jon Juaristi Jorge Martinez Reverte, Lorenzo Silva, Andres Trapiello, Fernando Savater, Carmen Posadas eta Ismail Kadare izan ziren.

12.1.2 Antzerkia eta Dantza

Bilboko Arriaga udal Antzokiarekin sinatutako lankidetzaren baliatuta kalitatezko programazioarekin jarraitu ahal izan da, Emilio Sagiren zuzendaritzapean. Horkoak dira "Hurbiltasun Antzokia" izeneko programan bildutako antzezlanak.



Programazioan honako antzezlan hauek aurkeztu dira, besteak beste, 2012an: "Begi Urdinen Bildotsa", "Malaga", "Emagaldu baten epaiketa", "Hedda Gabler", eta "Larria Kutsakorra Mendebaldekoa" eta "Euskarazetamol" euskarazko lanak; baita ere, master class saioak, umorezko antzerkian Clown-ak duen paperari buruzkoak, adibidez Cal McCrystal aktore eta zuzendariak -Cirque du Soleil-en laguntzen du, beste konpainien artean- egindakoak.

12.1.3 Musika

Aurreko urteetan bezala, ohiturazko BBK Flamenko zikloa eman du BBK Salak 2012an ere, eta bertan aurkezten diren programetan arrakastatsuenetakoa izan da, jendearen parte hartzea eta kritika kontuan hartzen badira. Azken edizio honetan flamenko munduko dantza, gitarra, kantua eta antzezturiko emanaldiak nahastearen alde egin da, Manuel Agujetas -flamenkoaren historia biziduna- mitikoaren kontzertuarekin eman ez amaiara. Eta,

Gabonetan ohitura bilakatu den legez, "Zambomba Flamenca" antolatu zen, hots, Gabon flamenkoari eskainitako ikuskizuna.



Era berean, beste musika mota batzuk ezagutarazteko xedez, fadoari eskainitako ziklo berri bati eman zaio hasiera 2012an. Flamenkoaren modura, ikuspegi didaktikotik egin izan da hau ere, kantu eta estilo aukera zabala eskainita.

BBK Salaren programazioak, ohiko denez, musika estilo guztietako ziklo anitz eskaini du, hala nola, BBK Jazz Jaialdia (diziplina horretako euskal artistei eskainitakoa, hain zuzen), dagoeneko ospetsu egin den *Gaur Egungo Musikak* Jaialdia, edo *Musiketan* bera, 20. urteurrenera iritsita, beste batzuen artean. Elliot Murphy, Antje Duvekot, Sean Keane eta Lou Lesage bezalako nazioarteko artistak igaro dira bertatik.

Music Legends zikloaren jardunaldietako bakoitzean Sala bete egin da. Bill Wyman Rolling Stones-eko baxu jotzailea, John Cale, Magic Slim, Jimmy Cliff, Mick Taylor, Jorma Kaukonen edo Canned Heat bezalako artistek jo izan dute bertan.



Master at Work zikloak, bere aldetik, jazzaren artista ezagunenei zuzendutako denak, gaur egungo artistarik garrantzitsuenak ekarri ditu Bilbora: Kenny Garret, Robben Ford, Larry Carlton, Esperanza Spalding, Chucho Valdes, Al Di Meola, Scott Henderson, Lou Donaldson, Chuck Loeb, Pat Martino, Kenny Barron, eta beste.



Beste ziklo batzuek ere izan dute tokia 2012an, *BBK Live Bereziak* esate batera, Rich Robinson, Blind Melon, Supersubmarina, Corizonas, John Hiatt eta abarrekin. Gazteenak musikan trebatzeko jardueri dagokionez, *Kontzertu Didaktikoak* antolatu dira aurten ere BOS-ekin, *Ikastetxeei zuzendutako Jazza* zikloa eta *Doremika* programa.

Euskal sustraiko musikarentzat ere egon da tokia: beste batzuen artean, Oskorriren santotomasetako ohiko kontzertua eta Xabier Lete, Imanol eta Mikel Laboaren omenezkoak egon dira.



12.1.4 Zinema

2012an emanaldiak egon dira BBK Salan *Zentsura At Jaialdiaren* barnean. Eta baita *Emakumeek Egindako Zine Zikloa* eta *Zinebiren* lotutako jarduera multzoa.

12.1.5 Beste jarduera batzuk

BBK Salaren joan den urteko jarduera diziplina askotariko beste ekitaldi batzuekin osatu da. Horien artean daude "Euskal Poesiaren Jardunaldiak", *BBK-Klip* euskarazko bideo lehiaketako sarien banaketa, "Thinking Football" hitzaldi zikloa Athletic Fundazioarekin

batera, erakundeen hainbat ekitaldi eta BBKren batzar nagusiak.

BBK Salan antolatutako ekitaldietara 60.000 lagun hurbildu dira guztira 2012an.

12.2 [BBK Mediateka](#)

Alondegian dago **BBK Mediateka**, eta berau da orain Bilboko erreferentzia-gune berria hiriko kultura, kulturaren gaurkotasuna eta joera berriak garatu eta zabaltzen.

BBK Mediateka BBKren Gizarte Ekintzak **kultura eta sormena sustatzeko** duen filosofiarekin uztartu da bete-betean, biltzen dituen edukiengatik eta eskaintzen dituen zerbitzuen izaera unibertsal eta irekiarengatik. BBK-k bere gain hartzen du programazioaren kostu osoa, urtean 2 milioi euro baino gehiago jarrita. Programazio horren bidez jarduera soziokulturalak eta zabalkunde eta aisialdiko ekintzak antolatzen dira.

Hiru solairutan banatzen den 4.000 m²-ko ekipamendu honek baliabide bibliografiko ugari ditu, eta irakurketarako guneak eta hainbat baliabidez hornitutako esparruak biltzen ditu, dokumentalak eta beste herrialdeetako saiok eta filmak hainbat hizkuntzatan ikusteko ordenagailu eta pantailekin. Horrez gain, erabilera anitzeko gune bi eta hamahiru urtetik gorakoentzako Ikasteko Gela daude. **BBK Mediatekak** euskarri ezberdinetan jasotako bolumenak ditu (liburuak, CDak, DVDak, landutako dokumentazioa, egunkariak eta tokiko zein nazioarteko aldizkariak, etab.) honako gai hauei lotutakoak: komikiak, ikus-entzunezkoak, diseinua, zientzia eta teknologia, literatura, musika, osasuna eta jarduera fisikoa. 64.618 dokumentu biltzen ditu guztira BBK **Mediatekaren** dokumentu-fondoak; horietatik, 6.827, 2012an eskuratu dira.

Bilboko Alondegia berak emandako datuen arabera, **BBK Mediatekak** 1.805 bisita jaso ditu batez beste eguneko 2012. urtean, 658.000 lagun urte osoan, eta 64.294 kide ditu.



12.3 [Museoekiko lankidetza](#)

BBK-k lan handia egiten ari da kultura-eremuan lurraldeko museo nagusiekin batera. Azpimarragarriak dira honako erakunde hauekin dituen lankidetza-programak, izan duten oihartzunagatik:

- ✓ **Guggenheim Museoa.** BBKren Gizarte Ekintzak Museoaren hezkuntza-programa batzuetan laguntzen du BBK Fundazioaren bitartez; "[Artea Ikasbide](#)" esaterako, ikastetxetan bertan burutu izan den egitasmoa Museoko ekipoaren monitorizazioaz lagunduta. Programari amaiera emateko ikasturte bukaeran Guggenheimeko aretoetako batean egindako lan garrantzitsuenak biltzen dituen erakusketa egin zen.

BBK-k laguntza ematen du gida- eta bisita-sistemak berri eta gaurkotzeko ere, gazteei eta familiei zuzendutako jardueretarako, eta gazteenentzako ekitaldi bereziekin, [Art After Dark](#) gisako



zikloa, adibidez.

Horrekin batera, BBK-k urteak daramatza izaera sozialeko programa aukera zabala finantzatzen. Zailtasun bereziak dituzten taldeei arerako sarrera errazten zaie programa horiekin, desgaitasunen bat jasaten duten pertsonei edo Bilboko Basurtu eta Barakaldoko Gurutzetan ospitaleratutako gaixoei, kasu.

- ✓ **Bilboko Arte Ederren Museoa.** Museoaren BBK Salak ikastetxe, familia eta, oro har, herritarrentzat zuzendutako heziketa-programa guztiak hartu ditu bere gain. Horrez gain, oso erakusketa garrantzitsua eskaini du Anselmo Guinearen lana, Goyaren Grabatuak eta Fernando Botero kolonbiar artista handia ardatz hartuta. Museoaren historian bisitaririk gehien izan duen bigarren erakusketa izan da, 2011n Antonio Lopez-i eskainitako erakusketaren ondoren -hori ere BBK-k finantzatua-.



- ✓ **Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa.** BBK Fundazioak Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren jarduerak laguntzen ditu. Museoak Bilboko Itsasadarrean eta Itsasadarretik bizi izan diren gizon eta emakumeen historia, kultura eta nortasuna zaindu eta zabaltzeko lan egiten du.



- ✓ **Gernikako Bakearen Museoa.** Bakean eta giza eskubideetan oinarritzen den erakunde horren jarduerak babesten ditu BBKren Gizarte Ekintzak. Laguntza horri esker, erakusketak, tailer didaktikoak eta hezkuntza-baliabideak antolatzen dira.
- ✓ **Gallartako Meatzaritzaren Museoa.** Bizkaiko ikastetxe, institutu eta lanbide-heziketako taldeek museorako doako bisita ukan dezakete, BBK Fundazioaren laguntzari esker. Gallartako Museo honek gure herriaren historiarekin lotura estua duen meatzaritzaren industri ondarea zabaldu eta babesteko helburua du.
- ✓ **Beste erakusketa batzuk.** 150 erakusketa ibiltari sustatu ditu BBK-k Bizkaiko kultur etxeetan 2012an. "Bbkmatikak" programaren beste edizio bat burutu da,

ikastetxeetan matematikak ezagutu eta ikastea sustatzera zuzendutako programa, alegia. Ehun mila lagun baino gehiago bildu dituzte guztira programa horiek.

12.4 Musika

BBKren Gizarte Ekintzak musika-ekitaldi handietan nahiz tokian tokiko ekimen txikietan parte hartzen du. Prestakuntza eta hezkuntzako jardueraz gain, Bilboko *Euskalduna Jauregiaren* eta *Arriaga Antzokiaren* laguntza nabarmendu behar ditugu izan duten garrantzia ekonomikoagatik.

Bestetik, Udaberriko Kontzertu Koralak aipatu behar ditugu. Horietan parte hartu izan dute Bizkaiko egun abesbatzak baino gehiagok. Halaber, gogora ekarri nahi ditugu, besteak beste, 4.000 ume baino gehiagok parte hartu dute BOSeK egindako Kontzertu Didaktikoetan eta Euskal Herriko Gazte Orkestrari emandako sostengua nahiz *Getxoko Jazz eta Folk Jaialdien* babesak.

Gazteenei zuzendutako musika-kontzertuen artean, "Break on Stage" jaialdiaren babesaz gain, "BILBAO BBK Live" aipatu behar dugu, izan ere, iaz Bilboko Kobeta mendian 125.000 lagun elkartu zituen.



12.5. Euskara eta euskal kultura

Euskaltzaindia. BBK-k Euskaltzaindiarekin izandako lankidetzak historikoaren barruan, ikastetxeei zuzendutako literatura-sarien deialdi berria egin eta haien erabakia eman dute. Horietan parte hartu dute Euskal Herri osoko 500 ikasle baino gehiagok.

Durangoko Liburu eta Disko Azoka. Aurreko edizioetan bezala, BBK Fundazioak diruz lagundu du euskal kulturaren urteroko hitzordu hau. Bertan agertu dira euskaraz egindako berrikuntza editorial zein musikal nagusiak.

Azkenik, fundazioak jarraitu du euskara eta euskal kultura sustatzea xede duten herri-erakunde eta erakunde pribatu nagusiekin lankidetzan. BBK-k finantzaturako programa hauen bidez, esate baterako, **Eusko Ikaskuntzak** eta **Labayru Institutuak** egindako ikerketa-lanak egin ahal izan dira. Gainera, **Mendebalde** elkartearekin eta beste erakunde batzuekin hizkuntza-alorreko ikerlanak egin dira. Ekimen horiekin batera, euskararen sustapenari dagokionez, besteak beste, Bertsolari Gazteen Txapelketa eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketa antolatu dira, antzerki, musika, ikerketa eta edizioa sustatzeko jardueraz gain.



12.6 Argitalpenak

Bizkaiko Gaiak

- ✓ Hurrengo liburuak argitaratu dira: "Anselmo Guinea", "Libelulas de Bizkaia", "Antonio Ferrer (1900-1976)" eta "Vidas y Bombas" Bernardo Atxaga, Ignacio Martinez Pison, Jose Fernandez de la Sota eta Miguel Gonzalez San Martin autoreen

testuak dituen ipuin laburren bilduma, Gernikako bonbardaketaren 75. Urtemuga dela eta egindakoa.

- ✓ **Irakurzaletasuna sustatzeko programa.** Liburutegi publikoen eta ikastetxeen sareko ikus-entzunezko programa, BBK-k finantzatutakoa. 2012an, guztira, 140 aurkezpen egin dira.

13. Giza Baliabideak

BBK-Gizarte Ekintzaren plantilla operatiboa 2012ko ekitaldiaren amaieran 191 pertsonaz osatuta zegoen:

Plantilla operatiboa 2012/12/31n

	GIZONAK	EMAKUME AK	GUZTI RA
31 urte baino gutxiago	-	18	18
31 - 40 urte	5	33	38
41 - 50 urte	3	7	10
51 - 60 urte	10	115	125
60 urte baino gehiago	-	-	-
GUZTIRA	18	173	191

Pertsonalaren banakapena 2012/12/31n

	GIZONAK	EMAKUME AK	GUZTI RA
Nagusien Unitatea	5	19	24
Haur Eskolak	6	114	120
Haur Egoitzak	2	16	18
BBKren Ola Zentroa	4	20	24
Bekak	0	1	1
Ingurunea eta Iraunkortasuna	0	2	2
Kultura	1	0	1
Beste batzuk	0	1	1
GUZTIRA	18	173	191

Plantilla propioaz gain, Sukarrietako Hezkuntza Esperimentaleko GUNEAn Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko plantillako 12 profesional daude lanean.

Prestakuntza alorrean 2012an izandako jarduera nagusiak honako hauek izan ziren:

- ✓ Haur Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak
- ✓ Pediatriako Terapia eta Motrizitatea (0-2 urte).
- ✓ Komunikaziorako Trebeziak, Motibazioa eta Gatazken Tratamendua.
- ✓ Komunikazioa, Gorabeheren Tratamendua eta Gatazken Kudeaketa
- ✓ Haur Autonomia eta Kalitatezko Zainketak Haur Heziketan
- ✓ Lan Arriskuen Prebentzioa

Barne Prestakuntzako Programak

	Parte-hartzaileak	Ordu-kopurua
PRESTAKUNTZA OROKORRA	432	2.779
EUSKARA	7	534
GUZTIRA	439	3313

14. BBKren Gizarte Ekintzako Guneak

BBK BERAK KUDEATUTAKO GUNEAK		
Gunea	Helbidea	Udalerrria
ARTEAGABEITIAKO NAGUSIEN ZENTROA	Ekonomia, 42	BARAKALDO
BARAKALDOKO NAGUSIEN ZENTROA	Askatasunaren etorbidea, 39	BARAKALDO
GURUTZETAKO NAGUSIEN ZENTROA	Gurutzetako plaza, 3	BARAKALDO
GURUTZETAKO HAUR ESKOLA	Bakea/La Paz auzoa, 17	BARAKALDO
GURUTZETAKO HAUR ESKOLA	Florida, 7-9	BARAKALDO
BASAURIKO NAGUSIEN ZENTROA	Nagusia, 20	BASAURI
BASAURIKO HAUR ESKOLA	Autonomia, 3	BASAURI
ARIZKO HAUR ESKOLA	Extremadura, 4	BASAURI
ELKANO 20ko KULTUR GELA	Elkano, 22 etxabea	BILBO
ARANGOITIKO NAGUSIEN ZENTROA	Ganekogorta mendia, 9	BILBO
BASURTUKO NAGUSIEN ZENTROA	Aita Donosti plaza, 6	BILBO
ZAZPI KALEKO NAGUSIEN GUNEA	Erronda, z/g	BILBO
IBARREKOLANDAKO NAGUSIEN GUNEA	Aita Patxi plaza, 2	BILBO
OTXARKOAGAKO NAGUSIEN GUNEA	Zizeruene, 4	BILBO
SANTUTXUKO NAGUSIEN ZENTROA	Txomin Agirre, 3	BILBO
ZORROTZAKO NAGUSIEN GUNEA	Montevideo etorbidea, 121	BILBO
ZURBARANGO NAGUSIEN ZENTROA	Trauko, 15	BILBO
IBARREKOLANDAKO HAUR ESKOLA	Aita Patxi plaza, 4	BILBO
ERREKALDEKO HAUR ESKOLA	Gordoniz, 66	BILBO
SANTUTXUKO HAUR ESKOLA	Laurencin markesa, 1	BILBO
TORRE URIZARREKO HAUR ESKOLA	Baiona, 1 -3	BILBO
URAZURRUTIAKO HAUR ESKOLA	Urazurrutia, 3	BILBO
BBK SALA	Kale Nagusia 19	BILBO
ASTRABUDUAKO NAGUSIEN ZENTROA	Etxegorri, 20	ERANDIO
ERANDIOKO NAGUSIEN ZENTROA	Jose Luis Goioaga, 22	ERANDIO
ALGORTAKO NAGUSIEN ZENTROA	Urgull, 4	GETXO
ALGORTAKO HAUR ESKOLA	Oillarretxe, 33	GETXO
ERROMOKO HAUR ESKOLA	Ezequiel Agirre, 21	GETXO
BRIÑASEKO EGOITZA	Logroñorako errepidea, z/g	LA RIOJA
PORTUGALETEKO NAGUSIEN ZENTROA	Aita Kortazar, 7	PORTUGALETE
SANTURTZIKO NAGUSIEN ZENTROA	Francisco Calles maisua, 2	SANTURTZI
CABIECESEKO HAUR ESKOLA	Etxea Fundazioa, 5	SANTURTZI
SESTAOKO NAGUSIEN ZENTROA	Aizpuru 5-7 etxabeak	SESTAO
SESTAOKO HAUR ESKOLA	Carlos VII, 58	SESTAO
ADIMEN DESGAITASUNERAKO BBKren OLAKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
SUKARRIETAKO UDALEKUA	Sabino Arana Goiri z/g	SUKARRIETA

BESTE ERAKUNDEEK KUDEATUTAKO GUNEAK		
Gunea	Helbidea	Udalerria
GALLARTAKO AUZO ETXEA	Cotarro auzoa, 1 behe ezkerria	ABANTO-ZIERBENA
GALLARTAKO NAGUSIEN ZENTROA	Meatzaria etorbidea 3	ABANTO-ZIERBENA
ALONSOTEGIKO LIBURUTEGIA	Maximo Txabarri, z/g	ALONSOTEGI
ARRIGORRIAGA-ZUBIETXEKO EGUNEKO ZENTROA	Abenduaren 22a	ARRIGORRIAGA
BALMASEDAKO NEKAZARITZAKO BULEGOA	Correria, 18	BALMASEDA
LUTXANAKO LIBURUTEGIA	Artzain Ona, 66 etxabea eskuma	BARAKALDO
BARAKALDOKO AUZO ETXEA	Artzain Ona, 58 – 2. etxabea	BARAKALDO
BARAKALDOKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Elizateko, 9 - 1.	BARAKALDO
GURUTZETAKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Aingeruak/Angeles 8 – 1.	BARAKALDO
SAN BIZENTEN NAGUSIEN ZENTROA	Gernikako Arbola, 68-70-72-74	BARAKALDO
BERMEOKO GIZARTE ETXEA	Intxausti 1	BERMEO
BERRIZKO GIZARTE KULTUR ETXEA	Zengotitabengoa, 4	BERRIZ
BBK SARRIKO GUNEA	Agirre Lehendakaria, 138	BILBO
BILBO BBK GOOD HOSTEL	Miraflores etorbidea, 16	BILBO
ZABALAKO NAGUSIEN ZENTROA	Xenpelar, 2	BILBO
BIZITEGiko TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZA	Hernani, 24 – 2	BILBO
BOLUNTA – BOLUNTARIOTZAREN AGENTZIA	Erronda, z/g	BILBO
ZORROTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Montevideo etorbidea, 121	BILBO
APNABiren AUTISTENTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Julio Lazurtegi plaza, 13	BILBO
ALZHEIMERREN GAIXOENTZAKO EGUNEKO ZENTROA	Migoya, 7 eta Lazurtegi, 6	BILBO
TXURDINAGAKO BURMUINEKO PARALISIDUNEN EGUNEKO ZENTROA	Txomin Garat 22 (Artazuriña 2-4-6)	BILBO
OTXARKOAGAKO ADINEKOEN EGUNEKO ZENTROA	JL Arrese plaza, 42 - 4	BILBO
ALZHEIMERREN ESTIMULAZIO KOGNITIBORAKO JABETUZ ZENTROA	Jose Maria Olabarri, 6	BILBO
FUTUBIDE ZENTROA	Andres E Mañarikua, 14	BILBO
HENAOKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Henao, 7-5.	BILBO
SAN IGNAZIOKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Larrako Torre, 2 behe	BILBO
SANTUTXUKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Laurencin markesa, z/g	BILBO
DEUSTUKO NAGUSIEN ZENTROA	Blas de Otero poeta, 22	BILBO
ZURBARANGO NAGUSIEN ZENTROA	Artzain Ona, 20	BILBO
ERAGINTZA FUNDAZIOA	Iruña, 17 eta Madariaga etorbidea, 29	BILBO
GANBARA – ELKARTEEN HOTELA	Erronda, z/g	BILBO
EHUKO PARANINFOA - BIZKAIA ARETOA	Abandoibarra etorbidea, 3	BILBO
APAIZ OHORAGARRIEN EGOITZA	Begoñako Andra Mari, 41	BILBO
EHUKO ESPERIENZA GELAK	Espainiako Bankua, 2	BILBO
GIZARTE ALOKAIKOKO 40 ETXEBIZITZAKO SAREA	Matilde Orbegozo, 12/23	BILBO
ETXEBARRIKO HAUR ESKOLA	Elizako bidea, z/g	ETXEBARRI
DURANGOKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Murueta Torre, 4 behe	DURANGO
DURANGOKO NAGUSIEN ZENTROA	Kanpatorrosteta, 9	DURANGO

Gunea	Helbidea	Udalerrria
HETEL – LANBIDE HEZIKETAKO KOORD. ZENTROA	Kanpatorrosteta, 5	DURANGO
ERANDIOKO LIBURUTEGIA	San Jeronimo, 3 eta 5	ERANDIO
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Etxegorri, 16-18	ERANDIO
ERMUKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO ZENTROA	Zubiaurre, 29	ERMUA
ERMUKO NAGUSIEN ZENTROA	Erdikokale, 17-18	ERMUA
LEIOAKO ADINEKOEN GELA GUNEA	Lapurdi 1-3	LEIOA
ENPLEGUA SUSTATZEKO LEIOAKO GUNEA	Mendibile, 3	LEIOA
MUNGIAKO NEKAZARITZAKO BULEGOA	Elorduigoitia, 5	MUNGIA
MUSKIZEKO NAGUSIEN ZENTROA	Antonio Trueba etorbidea, 1	MUSKIZ
ONDARROAKO EGUNEKO ZENTROA	Iñaki Deuna 37, beheko atea	ONDARROA
URDUÑAKO EGUNEKO ZENTROA	Gernikako plaza, 5-7 etxabeak	URDUÑA
ORTUELLAKO UME AUTISTEN ESKOLA	Bilbo etorbidea, 20	ORTUELLA
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Bizkaia, 1	PORTUGALETE
FLORIDAKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Simon Bolibar, 2 behea	PORTUGALETE
ERREPELEGAKO AUZO ETXEA	Alonso Allende, 1-2	PORTUGALETE
ASPALDIKO EGOITZA	Kanpazar gaina, z/g	PORTUGALETE
SANTURTZIKO LIBURUTEGIA	Viñas z/g - Bruno Alegria, 3	SANTURTZI
CABIECESEKO ZEREGINETARAKO LANTEGIA	Hogar Fundazioa etorbidea, 9	SANTURTZI
CABIECESEKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Hogar Fundazioa etorbidea, 5	SANTURTZI
CABIECESEKO NAGUSIEN ZENTROA	Axular, 1	SANTURTZI
MAMARIGAKO NAGUSIEN ZENTROA	Simon Bolibar, 13	SANTURTZI
BAGABILTZA GIZARTERATZEKO ZENTROA	Kale Nagusia, 51	SESTAO
SESTAOKO EMAKUMEAREN SUSTAPENERAKO GUNEA	Pardo Bazan 4 - 1.	SESTAO
SESTAOKO ZENTRO SOZIOSANITARIOA	Hiru Kontzejuen plaza, 2	SESTAO
ZEREGINETARAKO LANTEGIA ETA LANTEGI BATUEN ENPLEGU GUNE BEREZIA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
SAIOA GORABIDE ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
LANTEGI BATUEN GIZARTERATU ETA LANERATZEKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
ADIMEN DESGAITASUNA DUTENEN BEHIN BEHINEKO EGONALDIETARAKO EGOITZA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA
GORABIDE EGUNEKO ZENTROA	Goietxa bidea, 2	SONDIKA